



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko irailaren 11

97. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duena (2. or.).
- Foru Lege proiektua, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duena (17. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa. Proposamenaren testua (37. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2014ko abuztuaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Par-lamentura igorri du ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duena Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-zarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea ekai-naren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gai-neko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategi-na hein batean aldatzen duena Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalme-na Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Ba-tzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko urriaren 3an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artiku-luan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru lege proiektu honek zenbait aldaketa egi-ten ditu ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea-ren Testu Bateginean.

Errenta salbuesien arloan egindako aldaketa garrantzitsuena dibidenduen salbuespena kentzea izan da. Hori 7.v) artikuluan dago arautua, 1.500 euroko mugarekin. Horrez gain, aipatu 7. artikuluko gainerako salbuespenak berrantolatu eta birmol-datu dira.

Lanaren etekin garbien zehaztapenari dagokio-nez, %40tik %30era jaitsi da murrizketa-ehunekoa bi urtetik gorako sortze aldia duten lanaren etekin osoetarako eta erregelamendu bidez modu irregu-lar nabarmenean jasotakotzat jotzen direnetarako. Ehunekoa modu berean jaisten da foru lege honen 14.2.a) artikuluan adierazitako prestazioen kasuan, hots, kapital gisa jasotzen direnetan (pen-tσιο eta hartzeko pasiboak, mutualitateen presta-zioak, pentsio planen prestazioak, aseguru kolekti-boen kontratuen prestazioak eta antzekoak), betiere bi urte igaro badira lehenbiziko ekarpene-tik. Bestalde, zehazten da murrizketa horiek ez direla aplikatuko etekinak zatika kobratzen badira. Era berean, xedatzen da %30eko murrizketak apli-katu ahal izateko, etekin osoak ezin izanen direla 300.000 eurotik gorakoak izan. Zenbateko horreta-tik gorako soberakinari ez zaio inolako murrizketa-rik aplikatuko. Bestalde, jada ez dira lanaren eteki-nen gastu kengarritzat hartuko sindikatu-kuotak eta defentsa juridikoko gastuak. Sindikatu-kuotek

murrizketarako eskubidea izanen dute kuota osoan. Hori 62.6 artikuluan dago arautua.

Ondasun higiezinaren kapitalaren etekin garbiari dagokionez, egindako aldaketen xedea da, batetik, arau fiskalen bidez neutraltasuna lortzea PFEZaren subjektu pasiboan inbertsio erabakiei dagokionez, eta, bestetik, zerga honen etekinei antzeko zerga tratamendua ematea gastu kengarrien arloan.

Horrela, ondasun higiezinaren kapitalaren etekinengatik aurrezkiaren likidazio-oinarri berezian ordainduko da zerga aurrerantzean. Gainera, ondasun higiezinaren kapitalaren etekinen etekin garbia zehazteko araubidea aldatzen da honako alderdi hauetan:

a) Interesak eta gainerako finantzaketa-gastuak ez dira gastu kengarriak izanen. Hala eta guztiz ere, kenkarien araubide iragankorra ezartzen da 2015. eta 2016. urteetarako.

b) Gastu kengarriak diru-sarrera osoen zenbatekora mugatzen dira; hortaz, ez da etekin garbi negatiborik egonen.

c) Etekin garbiaren %40ko murrizketa kentzen da etxebizitzetarako diren ondasun higiezinaren errentamenduan.

Enpresa- eta lanbide-jardueren etekin garbiari dagokionez, ehuneko 40tik ehuneko 30era jaisten da etekinen murrizketa bi urtetik gorako sortze aldia duten etekinetarako edo modu irregular nabarmenean jasotakotzat jotzen direnetarako. Halaber, 300.000 euroko muga ezartzen da murrizketa hori aplikatzeko; hortaz, ez zaie aplikatuko zenbateko horretatik gorako kopuruei; azkenik, murrizketa kendu da ordainketa zatika egiten bada.

Bestalde, aldaketa garrantzitsuak egin dira 35. artikuluan, non enpresa- eta lanbide-jardueren etekin garbia zuzeneko estimazioan zehazteko arauak ezartzen diren; horretarako, aintzat hartu da sozietateen gaineko zergan arlo horretan proposatzen den erregulazio berria.

Lehenik eta behin, mugak ezarri zaizkio harreman publikoen (jatetxeak, bidaiak, ostalaritza eta abar) eta oparien ondoriozko gastuen kengarritasunari. Bigarrenik, mugak eta murrizketak ezarri zaizkio automobilekin zerikusia duten gastuen kengarritasunari. Azkenik, ez kengarritzat jotzen dira eskudiruzko ordainketaren mugak betetzen ez dituzten gastuak (urriaren 29ko 7/2012 Legea).

Ondare-gehikuntzei eta -murrizketei dagokionez, honakoa ezartzen da: konkisten edo irabazpidezko ezkontza sozietatea desegiten bada edo

ezkontideen arteko partaidetza-araubide ekonomikoa azkentzen bada, ondare aldaketa ontzat hartuko da gehiegizko esleipenak badaude. Ondare-gehikuntzaren salbuespena kentzen da 65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitzaren eskualdaketetan, salbu eta pertsona horiek mendekotasun moderatua badute; hortaz, soilik salbuetsiko da mendekotasun larria eta mendekotasun handia dutenen eta 65 urtetik gora izanik mendekotasun moderatua duten pertsonen ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzetik heldu den ondare-gehikuntza.

55.1.zazpigarrena artikuluan aldaketa garrantzitsua egin da gizarte aurreikuspeneko sistemetako ekarpen eta kontribuzioengatik zerga-oinarriaren zati orokorrean egin beharreko murrizketen gehieneko mugari dagokionez. Lanaren etekinen eta enpresa-jardueren gaineko 100eko 30eko eta 50eko portzentaje muga ez da aldatzen; baina 8.000 euroko muga absolutua 6.000 eurora jaisten da (50 urtetik beherako partaide edo mutualisten kasuan) eta 12.500 euroko muga 8.000 eurora jaisten da (50 urtetik gorako partaide edo mutualisten kasuan).

Gutxieneko pertsonal eta familiarrak, oro har, 100eko 5 igotzen dira; desgaitasuna duten pertsonenak, berriz, 100eko 10.

Ondorengoak, aurreko ahaideak, bestelako ahaideak eta desgaitasuna dutenak zaintzategitiko murrizketetan ere aldaketak izan dira. Orain arte, zerga-oinarriaren zati orokorrean murrizten ahal ziren subjektu pasiboak Gizarte Segurantzako kotizazioengatik zergaldian ordaindutako kopuruak, hain zuzen ere etxean ezaugarri batzuk betetzen dituzten pertsona zaintzen lan egiten dutenekin formalizatutako kontratuen ondorioz. Proposatzen den aldaketarekin, kontratu horietatik heldu den Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 15eko murrizketa ere egiten ahal da.

Karga eskala berriak eratu dira 59.1 artikuluko likidazio-oinarri orokorrerako eta aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziko (60. artikulua). Dena dela, berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian karga eskala espezifikoa ezartzen da 2015. urteko likidazio-oinarri orokorrerako.

Epailaren erabakiaren ondorioz seme-alaben mantenurako urtesariak ordaintzen badira, karga eskala orokorra bereizirik aplikatuko zaie mantenurako ordaindutako urtesariaren zenbatekoari eta gainerako likidazio-oinarri orokorrari. Hona egindako aldaketa: eskala modu berezian aplikatzearen ondorioetarako, mantenurako urtesariaren zenbatekoa, guztira, 6.000 eurokoa izanen da, gehienez,

seme edo alaba bakoitzeko. Hau da, gehieneko muga bat ezartzen da karga eskala modu berezi honetan aplikatzeko.

Gorago aurreratu den bezala, kenkari berria ezartzen da kuotan: sindikatu-kuotengatik eginen dena. Horiek dagoeneko ez dira gastu kengarriztat hartzen lanaren etekin osoetan (PFEZaren Foru Legearen Testu Bateginaren 18. artikulua) eta kuotaren kenkari izatera pasatu dira: sindikatuei ordaindutako kuoten ehuneko 15, nahiz eta kenkari horren oinarria, gehienez ere, 600 eurokoa izanen den urtean.

Era berean, kenkari berria ezartzen da alderdi politikoei ordaindutako kuotengatik eta egindako ekarpenengatik (62.8 artikulua). Alderdi politikoei ordaindutako afiliazio kuotek eta ekarpenek ez dute murrizketarik izanen zerga-oinarriaren zati orokorrean eta kuotan kendu ahalko dira, 62.8 artikuluari emandako testu berriarekin bat.

75. artikuluan (Baterako zerga-ordainketaren arau bereziak), 7. araua aldatu da. Alde batetik, ehuneko 5 igotzen da familia gurasobakarreko unitateetan aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonalaren igoera. Bestalde, ezartzen da igoera hori ez dela kasu guztietan aplikatuko. Hori horrela, osotara aplikatuko da familia unitateko kide guztien zerga-oinarrien arteko batura 50.000 eurokoa edo txikiagoa denean. Batura hori 50.000 eta 70.000 euro artekoa bada, aplikatuko den igoera ehuneko 50ekoa izanen da. Azkenik, aipatu batura 70.000 eurokoa edo handiagoa bada, ez da igoerarik aplikatuko.

Indarrrik gabe uzten dira seigarren eta zazpigarren xedapen iragankorrak. Zazpigarren xedapen iragankorrak 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuak eskualdatzearen ondorioz izan diren ondare-gehikuntzen murrizpen koefizienteak arautzen ditu. Bestalde, seigarren xedapen iragankorrak zazpigarren xedapen iragankorra landaluz birkalifikatu lursail jakin batzuei aplikatzeko kasu berezi bat arautzen du.

Artikulu bakarra. Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzea.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ondotik ematen den testua izanen dute ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manuek:

Bat. 7. artikulua.

“7. artikulua. Errenta salbuetsiak.

Errenta hauek salbuetsirik egonen dira:

a) Gizarte Segurantzak edo horren ordeko entitateek subjektu pasiboari aitortzen dizkieten prestazioak, erabateko ezintasun iraunkorraren edo baliaezintasun handiaren ondorioz.

Era berean, norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian sartu gabeko profesionaleri aitorturiko prestazioak -aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordeko lanak egiten dituzten gizarte-aurreikuspenetarako mutualitateen prestazioak badira-, beti ere, Gizarte Segurantzaren erabateko ezintasun iraunkorrerako edo baliaezintasun handirako aurreikusi diren egoera berberetarako prestazioak badira.

Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga:

Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuarengatik aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Soberakina lanaren etekin gisa zergapetuko da, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateenekin batera gertatuz gero, lanaren etekina azken horietan gertatu dela ulertuko da.

Era berean, salbuetsiak egonen dira Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak ordainketa bakarreko modalitatean ordaindutako langabezia-prestazioak (ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretua, enplegua sustatzeko neurri gisa, ordainketa bakarreko langabezia-prestazioa arautzen duena, bere zenbatekoaren balio eguneratua), betiere, aipatu arauan aurreikusitako xedeetarako eta kasuetan.

Aurreko lerroaldean aurreikusitako salbuespena aplikatzeko, akzioa edo partaidetza bost urtez mantendu beharko da baldin eta subjektu pasiboa lan-sozietateetan edo lan elkartuko kooperatibetan sartu bada edo merkataritza entitate bateko kapital sozialera ekarpen bat egin badu, edo, bestela, jarduna epe berean mantendu beharko da langile autonomoaren kasuan.

b) Administrazio publikoek desgaitasunagatik edo baliaezintasunagatik aitortutako pentsioak, baldin eta urritasun fisikoaren edo psikikoaren mailak edozein lanpostu betetzeko erabateko ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia badakar.

c) Langilea kaleratzeagatik edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan edo hori garatzeko araudian, edo kasua bada, epaiak betearazteko araudian nahitaezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuaren indarrez finkatutakoa ezin izango da, ordea,

derrigorrezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat hartu.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa alde batera utzi gabe, kaleratze kolektiboak Langileen Estatutuaren 51. artikuluan ezarritakoarekin bat egiten badira edo aipatu estatutuaren 52.c.) artikuluan aurreikusitako arrazoien ondorio badira, eta betiere bi kasuetan kausa ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak, produkziokoak edo ezinbesteko kausak direla medio, aipatutako Estatutuan bidegabeko kaleratzeagatik derrigorrezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia salbuetsiko da.

Letra honetan aipatutako kalte-ordain salbuesia 180.000 eurokoa izanen da gehienez ere.

Baldin eta kaleratzearen kalte-ordaina guztiz edo hein batean ordaintzen bada kaleratutako langileak lan egiten zuen entitateetik heldu diren ondare-elementuak emanez, ondare-elementu horiek merkatuan duten balioa salbuetsita egonen da, betiere honako baldintzak betez gero:

Lehena. Subjektu pasiboak ondare-elementu horiek jartzea jarduera ekonomiko bat langile autonomo gisa egiteko edo lan elkartuko kooperatiba bateko nahiz lan sozietate bateko bazkide-langile gisa jarduteko.

Bigarrena. Subjektu pasiboak langile autonomo gisa jardutea edo bazkide-langile gisa aritzea guxtienez ere bost urtez.

Hirugarrena. Subjektu pasiboak langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzea, hain zuzen ere 1044/1985 Errege Dekretuan araututakoa.

Laugarrena. Gauzazko kalte-ordainaren zenbateko salbuesia hauxe izanen da, gehienez ere: 180.000 eurori letra honetako lehenengo bi lerroaldean arabera salbuetsita dagoen diruzko kalte-ordainaren zenbatekoa kenduta ateratzen dena.

d) Zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz jasandako kalte pertsonalengatik Administrazio Publikoek ordaindutako kalte-ordainak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean eta Ondareko erantzukizunaren arloan administrazio publikoen prozeduren Erregelamendua onesten duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan aurreikusitako prozedurekin bat ezartzen direnean.

Orobat, zerga honetatik salbuetsita egonen dira honako lege hauetan aipatutako kalte-ordainen ondorioz jasotako diru-kopuruak: Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru

Legea, Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko urriaren 8ko 32/1999 Legea, eta Terrorismoaren Biktimek Aintzatetsi eta haiei Osoko Babesa Emateko irailaren 22ko 29/2011 Legea. Era berean, salbuetsita egonen dira ekintza terroristen ondoriozko kalteak arintzeko prestazio publiko bereziak, bai eta terrorismoaren aurkako borrokan emandako dominetatik eta kondekorazioetatik heldu diren pentsioak ere.

e) Kalte pertsonalen ondoriozko erantzukizun zibilaren kalte-ordainak, legalki edo juridikoki onesten den zenbatekoan.

Halaber, salbuetsirik egonen dira mota horretako kalteetarako istripu aseguruaren kontratuetatik heldu diren kalte-ordainak, salbu eta kontratu horien primek zerga-oinarria murriztu badezakete edo gastu kengarriztat har badaitezke foru lege honetako 35. artikuluko 1. araua aplikatzearen ondorioz. Salbuespenaren muga izanen da trafiko istripuetan pertsonen eragindako kalteak baloratzeako sistema jasandako kalteari aplikatetik ateratzen den kopurua; sistema hori Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilaria eta Aseguruari buruzko Legearen Testu Bategineko eranskinean ageri da. Testu bategin hori urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

f) Espetxeetan askatasuna kentzea konpentsatzeko Estatuko eta autonomia erkidegoetako legegietan ezarrita dauden kalte-ordainak, Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legean aurreikusitako kasuetan.

g) Literatur sari, sari artistiko edo sari zientifiko garrantzitsuak, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, bai eta "Vianako printzea" eta "Asturiasko printzea" sariak ere, modalitate ezberdinetan.

h) Beka publikoak, baita Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen aplikazio esparruan sartzen diren entitateek emandako beka ere, hezkuntza sistemaren maila eta gradu guztietako ikasketa arautuak Espainian nahiz atzerrian egiteko ematen direnak, are doktoregokoak ere, erregelamenduz ezartzen den bezala.

Salbuetsita izanen dira, orobat, erregelamenduz ezarriko den bezala, Prestakuntzako Ikerlarien Estatutua onetsi zuen urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak finkatutako eremuan, lehen aipatutako irabazi asmorik gabeko entitateek emandako beka eta beka publikoak, eta orobat, Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionario eta langileei eta unibertsitateko irakasle eta ikerla-

riei, ikerketarako bakar-bakarrik, entitate haiek ematen dizkieten beka eta beka publikoak.

Salbuetsita egonen dira, halaber, teknologoak teknologia zentroetan, unibertsitateetan edo enpresetan prestatzeko Foru Komunitateko Administrazioak emandako beka, kasuan kasuko deialdian hautatzen diren ikerketa eta garapen proiektuetarako.

Halaber, salbuetsiak egonen dira atzerriko unibertsitateetan master programak egiteko Nafarroa Bekak, bai eta Foru Komunitateko Administrazioak "Ekintzailearen Beka" delako programaren bidez emandako laguntzak ere.

i) Epailearen erabakiaren ondorioz gurasoek mantenturako jasotako urtesariak.

j) Hirurogeita bost urteko edo hortik gorako pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak edo babesik gabe dauden adingabeak familian hartzeko edo egoitza batera edo eguneko zentro batera eramatearen gastua finantzatzeko erakunde publikoek emandako dirua.

Era berean, erakunde publikoengandik jasotako kopuruak, mendekotasun egoeran dauden pertsonak beren arretarako zaintzak etxean bertan jaso ditzaten, eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko publikoak, familiaren baitako zainketa-erako eta laguntza pertsonalizaturako, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeari jarraikiz emandakoak.

Era berean, Foru Komunitateko Administrazioak gizarte integratzearako etxebizitzaren erosle edo esleipen-hartzaileei ematen dizkien diru-laguntzak.

k) Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategineko II. tituluko IX. kapituluaren arabera dauden familia prestazioak, bai eta Administrazio Publikoetako langileentzat, hala jardunekoentzat nola pasiboentzat, seme edo alaba desgaitu bakoitzarengatik ezarritako familia laguntza.

Era berean, umezurtzei dagozkien pentsio eta sarrera pasiboak eta hogeita bi urtetik beherakoak diren edo lan guztietarako ezinduak dauden biloben edo anai-arreben aldekoak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboaren araubide publikoetatik jasoak eta, halaber, zuztasunarengatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Modu berean, salbuetsiak egonen dira norbere konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian sartu gabeko

profesionalei aitorturiko prestazioak -aipatu Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordeko lanak egiten dituzten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen prestazioak badira-, betiere, aurreko bi lehenaldietan aurrekusi diren egoera berberetarako prestazioak badira, hots, Gizarte Segurantzak aipatu araubide berezian sartutako profesionalentzat aurreikusitakoak. Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga: Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuarengatik onesten duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Soberakina lanaren etekin gisa zergapetuko da, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateekin batera gertatuz gero, lanaren etekina azken horietan gertatu dela ulertuko da.

Halaber, salbuetsiak egonen dira Gizarte Zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuaren ezarritako prestazio ekonomikoak, baita gizarteratzeko errenta eta langabeentzako laguntzak ere, haien prestazioak eta sorospenak agortu badituzte. Horiek Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen daude ezarrita. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zuztasunagatik edo haur bat baino gehiago erditu edo adoptatzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere.

l) Goi mailako kirolariei emandako laguntza ekonomikoak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriarren Institutuak edo Kirolaren Kontseilu Nagusiak Espainiako kirol federazioekin edo Espainiako Batzorde Olinpikoarekin ezarritako prestakuntza programen barruan, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

m) Espainiako Estatuak nazioarteko bake edo gizabide misioetan parte hartzeagatik ordaindutako aparteko eskersariak, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

n) Atzerrian egindako lanarengatik jasotzen diren lanaren etekinak, ondoko baldintza hauek betetzen baldin badira:

Lehen. Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan. Bereziki, lan horiek hartuko dituen entitatea langilearen entitate enplegatzailearekin edo langileak bere zerbitzuak ematen dituen enpresare-

kin lotua badago, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 29. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

Bigarrena. Lanak egiten direneko lurraldean zerga hau bezalako edo antzeko beste zerga bat aplikatzea eta zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde bat ez izatea. Baldintza hau betetzen dela ulertuko da lanak egiten direneko herrialde edo lurraldeak Espainiarekin hitzarmena badu nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausularik badu.

Atzerrian egon bitartean sortutako ordainsariei aplikatuko zaie salbuespena, urtero 61.000 eurori gehienez. Erregelamenduz, egun bati dagokion diru-zenbateko salbuesia kalkulatzeko prozedura ezartzen ahalko da.

Destinoa atzerrian duten subjektu pasiboen kasuan, salbuespen hau bateraezina da zergapetzetik kanpo dauden soberakinen araubidearekin (zerga honen erregelamenduaren 8.A).3.b) artikuluan aurreikusia), edozein dela ere haien zenbatekoa. Subjektu pasiboak zilegi izanen du salbuespen honen ordez soberakinen araubidea aukeratzea.

ñ) 1936-1939ko Gerran edo gerraren ondorioz lesioak edo mutilazioak jasan zituzten pertsonen alde aitortutako pentsioak, Estatuko klase pasiboen araubidearen bidez edo horretarako emandako legediaren babesean.

o) Giza Immunoeskasiaren Birusa duten pertsonen osasun sistema publikoan egindako jarduketan ondorioz jasotzen dituzten edozein motatako laguntzak. Laguntza horiek maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege Dekretuan daude arautuak, horren bidez laguntzak ematen baitzaizkie Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIB) duten pertsonari.

Halaber, Hemofilia edo bestelako sortzetiko koagulopatiak dituzten eta C hepatitis garatu duten pertsonentzako gizarte laguntzak arautzen dituen ekainaren 5eko 14/2002 Legearen 2. artikuluan araututako laguntza ekonomikoak, osasun sistema publikoan koagulazio faktoreen kontzentratuen tratamenduak jasotzearen ondorioz, eta bestelako zerga-arau batzuk.

p) Foru Komunitateko Administrazioak erabilera partikularreko motorezko ibilgailuak erosi edo egokitzeko pertsona desgaituei ematen dizkien prestazio ekonomikoak.

q) Ehorzketagatik edo lurperatzeagatik jasotako prestazioak; muga izandako gastuen zenbateko osoa izanen da.

r) Foru lege honen 30.1.g) artikuluan aipatzen diren aurrezki sistematikorako banakako planen ondorio diren biziarteko errenta aseguratutako errenten aditzera ematen diren errentak.

s) Erakunde publikoek genero-indarkeriaren biktimei emandako prestazio ekonomikoak.

t) Lan sozietateetan eta lan elkartuko kooperatibetan ordezkapen enpresariala sustatzeko laguntzetatik datozen prestazio ekonomiko publikoak.

u) Ibilgailu automobilak, ordenagailu eramangarriak, telebista, etxetresna elektrikoak eta lurreko telebista digitala hartzeko deskodegailuak erosteko eta autoak eta ibilgailu astunak prest jartzeko diru-laguntza publikoak.

Halaber, baoak aldatuz etxebizitzaren isolamendu termikoa hobetzeko laguntza publikoak (leihoak, balkoiak ateak eta sabai-leihoak aldatzekoak), eta orobat, galdara, berogailu edo berokuntzarako sistema elektrikoak kendu eta horien ordez errendimendu handiko galdarak jartzeko laguntza publikoak.

Bj. 15.1.e) artikulua.

“e) Enpresak aseguru-kontratuaren edo horren antzekoaren ondorioz ordaindutako primak edo kuotak.

Ez dira lanaren gauzako ordainsaritzat hartuko laneko istripuetako aseguruaren edo erantzukizun zibileko aseguruaren primak, aseguruak langilea soilik estaltzen duenean eta urtean ordaindutako prima edo kuoten kopurua 500 eurotik gorakoa ez denean. Soberakina gauzako ordainsaritzat hartuko da.”

Hiru. 17.2. artikuluko a) eta b) letrak.

“a) ehuneko 30, bi urtetik gorako sortze aldia duten etekineterako (aldian-aldian edo behin eta berriz jasotzen direnak ez badira), eta erregelamendu bidez denboran modu irregular nabarmenean jasotakotzat jotzen direnetarako. Etekin horiek zatika kobratzen badira, ez da murrizketa hori aplikatuko.

b) ehuneko 30, foru lege honen 14.2.a) artikuluko prestazioak kapital gisa jasotzen badira, betiere bi urte iragan badira lehen ekarpenetik.”

Lau. 17.3. artikulua.

“3. Aurreko idatz-zatiko murrizketak ez zaizkie 14.2.a) artikuluko prestazioei aplikatuko errenta gisa jasotzen badira, ezta zerga-oinarria gutxitzen duten enpresa kontribuzio egotzietan ere, 55.1 artikuluekin bat.

2. idatz-zatiko a) eta b) letretan ezarritako murrizketak aplikatzeko, etekin osoak ezin dira 300.000 eurotik gorakoak izan. Soberakinari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko.

Dena dela, 2.a) letran ezarritako murrizketa ez zaie aplikatuko lan-harremana (arrunta nahiz berezia) edo 14.2 c) artikuluko merkataritza-harremana, edo biak azkentzearen ondoriozko lan etekinei, baldin eta etekin horien zenbatekoa 300.000 eurokoa edo handiagoa bada.

Aurreko lerroaldean aurreikusitakoaren ondorioetarako, konputatu beharreko lan etekinen zenbateko osoa honako hauen batura aritmetikoak zehaztuko du: lan etekinak, aurretik adierazitakoak, enpresatik beretik edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten sozietate taldeko beste enpresa batzuetatik datozenak –alde batera utzita horiek zenbat zergaldiri egozten zaizkien–, eta salbuetsiak egon litezkeen kopuruak.”

Bost. 18.1 artikulua, c) eta d) letrak kentzea.

Sei. 18.2. artikulua.

“2. Aurreko idatz-zatiko b) letrako gastu kengariak aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek profesionalen elkargoek administrazioari aurkeztutako aitorpenetan agertu beharko dute, zergen arloko araudiak ezarritako eruedetan eta epeetan.”

Zazpi. 25. artikulua.

“25. artikulua. Ondasun higiezinaren kapitalaren etekin garbia.

1. Etekin osoei ondoko gastu hauen zenbatekoa kendu ondoren aterako da ondasun higiezinaren kapitalaren etekin garbia:

a) Horiek erdiesteko egindako gastuak. Inolaz ere ez dira kenduko ondasun edo eskubideak erosi edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesen zenbatekoa eta gainerako finantzaketa gastuak.

b) Ondasun higiezina eta berekin batera lagatako gainerako ondasunen amortizaziorako zenbatekoak, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmen baten titulartasunetik datozen etekinen kasuan, ordaindutako eskuratze-kostuaren zati proporzionala kengarria izango da balio-galeraren kontzeptuarengatik, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

2. Kontzeptu guztiengatik kendu beharreko zenbateko osoa ez da izanen ondasunen edo

eskubideen lagapenagatik urtean lortutako etekin osoen zenbatekoa baino handiagoa.”

Zortzi. 26. artikulua.

“26. artikulua. Gozamen-eskubidea ahaidetasuna dagoenean.

Ezkontidearen, bikote egonkorren edo hirugarren mailara arteko ahaideen aldeko gozamen eskubidea eratzen bada, ezkontza-ahaideak barne, etekin garbia ez da oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren ondorioetarako ondasun higiezinak duen balioa baino txikiagoa izango.”

Bederatzi. 28.d) artikulua.

“d) Akzio edo partaidetzen jaulkipen-primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak gutxitu egingen du, deuseztatu arte, ukituriko akzio edo partaidetzen eskuratze-balioa, eta gera litekeen soberakina ondasun higigarrien kapitalaren etekin gisa zergapetuko da.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentzarauan (tresna finantzarioen merkatuei buruzkoan) definitutako balio-merkatu arautuetan negoziatzeko onartu ez diren balioei dagokien jaulkipen-primaren banatzen bada, balio horiek sozietateetako edo entitateetako funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, lortutako zenbatekoa edo jasotako ondasunen edo eskubideen merkatu-balio arrunta ondasun higigarrien kapitalaren etekintzat hartuko da, eta muga hauxe izanen da: prima banatu aurreko azken ekitaldi itxiari dagozkion akzioen edo partaidetzen funts berekien balioaren eta eskuratze-balioaren arteko diferentzia positiboa.

Ondorio horietarako, aurreko lerroaldeko funts berekien balioari jaulkipen-primaren banatu aurretik banatutako etekinen zenbatekoa –hots, funts bereki horietan sartutako erreserbetatik heldutako etekinen zenbatekoa– kenduko zaio.

Soberakinak akzioen edo partaidetzen eskuratze-balioa murriztuko du, d) letra honetako lehen lerroaldean xedatutakoarekin bat.”

Hamar. 32.2. artikulua.

“2. 30.3 artikuluko a), b), c), d) eta f) letretan aurreikusitako etekin garbiak, bi urtetik gorako sortze aldia dutenak edo denboran zehar modu irregular nabarmen batez lortutakoak, ehuneko 30 murriztuko dira. Etekin horiek zatika kobratzen badira, ez da murrizketa hori aplikatuko.

Aurreko lerroaldeko murrizketa aplikatu ahal izateko, etekin osoak 300.000 eurokoak izanen

dira gehienez. Mugaz gaindikoari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko”

Hamaika. 34.6. artikulua.

“6. Bi urtetik gorako sortze aldia duten jardue-
ra-etekin garbiak eta denboran zehar modu irregu-
lar nabarmen batez lortutakotzat erregelamendu
bidez jotzen direnak ehuneko 30 murriztuko dira.

Aurreko lerroaldeko murrizketa aplikatu ahal
izateko, etekin osoak 300.000 eurokoak izanen
dira gehienez. Soberakinari ez zaio inolako murriz-
ketarik aplikatuko.

Nolanahi ere, murrizketa hori ez da aplikatuko
baldin eta etekinak, haien zenbatekoa gorabehera,
modu erregularrean edo ohikoan era horretako
etekinak ateratzen dituzten enpresa- edo lanbide-
jardueretatik heldu badira, nahiz eta indibidualki
aurretik adierazitako baldintzak betetzen dituen
epearen barnean garatutako jardueren ondorioz-
koak izan.

Etekin horiek zatika kobratzen badira, ez da
murrizketa hori aplikatuko”

Hamabi. 35. artikulua.

“35. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenba-
tespenaren bitartez zehazteko arauak.

Enpresa- edo lanbide-jardueren etekin garbia
zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztean,
sozietateen gaineko zergaren arauak aplikatuko
dira, honako erregela berezi hauek ere kontuan
hartuz:

Lehena. Ez dira gastu kengarrizat joko Sozie-
tateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko
24/1996 Foru Legearen 24. artikuluan aipatutako
kontzeptuak, ez eta enpresaburu edo profesional
beraren gizarte aurreikuspeneko mutualitateei
egindako ekarpenak ere, foru lege honen 55.1.
artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

Hala ere, gastu kengarrizat joko dira norbere
konturako langileen edo autonomoen Gizarte
Segurantzako araubide berezian sartu gabeko
profesionalek gizarte aurreikuspeneko mutualitate-
ekin sinatutako aseguru-kontratuengatik prima edo
kotizazio gisa ordaindutako kopuruak, baldin eta
Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenari
buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen hama-
bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betebe-
harra betetzeko, aipatu Gizarte Segurantzako
araubide bereziaren ordezkotako gisa erabiltzen badi-
ra, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen egoerez
arduratzea helburu duen zatian, urteko 4.500
euroko mugaz.

Bigarrena. Subjektu pasiboaren ezkontidea edo
adingabeko seme-alabak berarekin bizi direla,
berak garatutako enpresa- edo lanbide-jardueretan
etenik gabe lan egin ohi dutela behar bezala
egiazaturik dagoenean, beharrezko lan-kontra-
tuaz eta Gizarte Segurantzako dagokion araubide-
rako afiliazioaz, etekina zehazteko bakoitzarekin
hitzartutako ordainsarietako kenkaria eginen da,
betiere haien gaikuntza eta beraiek burututako
lanari dagozkionak merkatukoak baino handiago-
ak ez direnean. Kopuru horiek ezkontidearen edo
adingabeko seme-alaben lan etekintzat joko dira.

Hirugarrena. Subjektu pasiboarekin bizi diren
ezkontide edo adingabeko seme-alabek haien jar-
dueran erabilitako ondasun edo eskubide lagape-
nak egiten dituztenean, jardueraren titularraren
etekina zehazteko hitzartutako kontraprestazioko
kenkaria eginen da, betiere merkatu-balioa gaindi-
tzen ez duenean eta, haren faltan, azken honen
kenkaria egin ahalko da. Kontraprestazioa edo
merkatu-balioa ezkontide edo adingabeko seme-
alaben kapitalaren etekintzat joko da.

Arau honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko bi
ezkontideenak diren ondasun eta eskubideei.

Laugarrena. Jarduera ekonomikoarekin lotuta-
ko gastu hauek kengarriak izanen dira, jarraian
adierazten diren zenbatekoan eta baldintzetan:

a) Subjektu pasiboak harreman publikoen arlo-
an garatutako enpresa- edo lanbide-jarduera
bakoitzaren gastuen ehuneko 50 (jatetxeko zerbi-
tzuak, ostalaritza, bidaiak eta joan-etorriak); kon-
tzeptu horien gehieneko muga subjektu pasiboak
zergaldian izandako diru-sarreraren bolumenaren
ehuneko 5 izanen da, jarduera bakoitzean.

b) Erregaluak eta gainerako opariak, baldin eta
jasotzaile eta zergaldi bakoitzeko zenbatekoa 300
eurokoa bada gehienez, eta jasotzailearen norta-
suna agiri bidez jasota geratzen bada. Aipatu gas-
tuek ezarritako zenbatekoa gainditzen badute,
zenbateko horretara bitarte izanen dira kengarriak.

Bosgarrena. Subjektu pasiboak berarentzat,
ezkontidearentzat eta gutxieneko familiarra dela-
eta murrizketarako eskubidea ematen dioten
ondorengoentzat ordaindu dituen gaixotasun-ase-
guruaren primak gastu kengarrizat joko dira, ete-
kin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubidea-
ren arabera zehazterakoan. Aipatutako pertsona
horietako bakoitzeko kenkaria 500 eurokoa izanen
da gehienez.

Seigarrena. Garraio elementuak erabiltzearen
ondoriozko gastuen inguruan aplikatu beharreko
arauak.

Bat. Oro har, ez dira kengarriak izanen automobilak eta beren atoiak, ziklomotorrak eta motorrak erosi, inportatu, errentan izan, konpondu, mantendu, amortizatu, balioa galdu eta erabiltzearekin zerikusia duten gastuak.

Subjektu pasiboak frogatzen badu bere jarduren izaera dela-eta erabili behar duen ibilgailua nabarmen garrantzitsua dela diru-sarrerak eskuratzeko, aipatu gastuen ehuneko 50 izanen da kengarrria ibilgailu bakarrari dagokionez, gehieneko muga hauekin:

a) Amortizazio, errentamendu edo lagapen gastuen kontzeptuan, subjektu pasiboak erabilitako amortizazio portzentajea 25.000 euroz biderkatuta ateratzen den zenbatekoaren ehuneko 50a.

b) Erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuei dagokienez, aipatu ibilgailuak eskuratzearrekin lotutako finantza gastuak barne, 4.000 euro.

Bi. Subjektu pasiboak modu sinesgarrian frogatzen bada ibilgailua soilik bere jarduera ekonomikoan erabiltzen duela, aipatu gastuak kengarriak izanen dira, muga hauekin:

a) Subjektu pasiboak amortizazio, errentamendu, lagapen edo balio-galera dela-eta erabilitako amortizazio portzentajea 25.000 euroz biderkatuta ateratzen den zenbatekoa.

b) Erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuei dagokienez, aipatu ibilgailuak eskuratzearrekin lotutako finantza gastuak barne, 7.000 euro.

Hiru. Aurreko Bat eta Bi ataletako amortizazio portzentajeak ofizialki onetsitako amortizazio tauletatik ateratzen direnak izanen dira.

Lau. Subjektu pasiboak ez bada ibilgailua urtearen zati batean erabili, arau honetan aipatu mugak erabilera denboraren araberrako proportzioan kalkulatu dira.

Bost. 6. arau honetan araututako mugak ez dira aplikatuko baldin eta aipatu arauan adierazitako gastuak jarraian adierazten diren ibilgailuen erabilerarekin lotuak badaude, ibilgailu horiek jarduera ekonomiko bat garatzeko soilik erabiliko baitira:

a) Salgaien garraioan erabilitako ibilgailu mistoak.

b) Bidaiariak garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen direnak ordain baten truke.

c) Fabrikatzaileek probetan, saiakuntzetan, erakustaldietan edo salmenten sustapenean erabiltzen dituztenak.

d) Merkataritzako ordezkarien edo agente komertzialen joan-etorrietan erabilitakoak, Bi ataletako a) eta b) letretan ezarritako mugekin.

e) Gidari edo pilotuentzako irakaskuntza zerbitzuetan erabiltzen direnak ordain baten truke.

f) Zaintza zerbitzuetan erabiltzen direnak.

g) Ordain baten truke alokatzeko jardueran soilik eta benetan erabiltzen diren ibilgailuak, jarduera horretan ohikotasunez aritzen diren entitateen bitartez.

Sei. Aisiako ontzi edo itsasontziak edo ur kiroletakoak edo aireontziak eskuratu, errentan izan, konpondu, mantendu, balioa galdu eta erabiltzearekin zerikusia duten gastuak ez dira kengarriak izanen, salbu eta modu sinesgarrian frogatzen bada jarduera ekonomiko bati lotuta daudela, halakoetan 6. arau honetako Bat, Bi, Hiru eta Lau ataletako mugak eta baldintzak aplikatuko baitzaizkie.

Zazpigarrena. Ez dira kengarriak izanen esku-diruzko ordainketei buruzko mugen araudian xedatutakoa betetzen ez duten eragiketen ondoriozko gastuak ((7/2012 Legea, urriaren 29koa, iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributu eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzekoa, 7. artikulua).

Zortzigarrena. Zuzeneko zenbatespen erraztua. Modalitate hau subjektu pasiboaren zenbait jarduerari aplikatuko zaie, baldin eta haien negozio kopuruaren zenbatekoa garbia, berak betetako jarduera guztietarako, erregelamendu bidez ezarritako den zenbatekotik gorakoa ez bada aurre-aurreko urtean, non ez duen subjektu pasiboak berak aplikatzeari uko egin. Halaber, zenbait gastu kengarrri zenbatzeko erregela bereziak ezarri ahal izanen dira”

Hamahiru. 39. artikulua, 3.b) eta 4.a) idatz-zatiak.

“b). Konkisten edo irabazpidezko ondasunen ezkontza-sozietatea desegiten bada edo partaidetzazko ezkontza-araubide ekonomikoa suntsitzen bada, betiere gehiegizko esleipenak gertatzen ez badira”

“a) Kapital-murrizketetan. Kapital-murrizketak, xedea duena duelarrik, balore edo partaidetzak amortizatzea eragiten duenean, amortizatutzat joko dira eskuratutako lehenak, eta hauen eskuratzeko-balioa proportzionalki banatuko da zergadunaren ondarekoak izaten segitzen duten gainontzeko balore homogeneoen artean. Kapital-murrizketak ez badie berdin eragiten zergadunaren balore edo

partaidetza guztiei, eskuratutako lehenei dagokie-la ulertuko da.

Kapital-murrizketaren xedea ekarpenak itzultzea denean, murrizketa horren zenbatekoak edo jasotako ondasunen edo eskubideen merkatuko ohiko balioak ukitutako baloreen edo partaidetzen eskuratzeko balioa gutxituko du, aurreko lerroaldeko arauarekin bat, deuseztatu arte. Soberakinik bada, edozein motatako entitatearen funts berekietako partaidetzatik datorren ondasun higigarrien kapitalaren etekin gisa integratuko da, 28. artikuluan jaulkipen-primaren banaketarako ezarritako moduan, salbu eta aipatu kapital-murrizketa hori banatu gabeko mozkinetatik heldu bada; kasu horretan, kontzeptu horregatik jasotako kopuru guztiak aipatu artikuluko a) letran aurreikusitakoarekin bat ordainduko dira.

Ondorio horietarako, ulertuko da kapital-murrizketek, haien helburua edozein dela ere, lehenik eta behin ukitzen dutela mozkin ez banatuetatik sortu ez den kapitalaren parte, baliogabetu arte.

Aurreko lerroaldeetan xedatutako gorabehera, xedetzat ekarpenak itzultzea duen eta mozkin ez banatuetatik ez datorren kapital-murrizketaren kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan (tresna finantzarioen merkatuei buruzkoan) definitutako balio-merkatu arautuetan negoziatzeko onartu ez diren balioei dagokiena, balio horiek sozietateetako edo entitateetako funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, lortutako zenbatekoa edo jasotako ondasunen edo eskubideen merkatu-balio arrunta ondasun higigarrien kapitalaren etekintzat hartuko da, eta muga hauxe izanen da: kapital-murrizketaren aurreko azken ekitaldi itxiari dagozkion akzioen edo partaidetzen funts berekien balioaren eta eskuratzeko balioaren arteko diferentzia positiboa.

Ondorio horietarako, aurreko lerroaldeko funts berekien balioari kapital-murrizketaren aurretik banatutako etekinen zenbatekoa –hots, aipatu funts berekietan sartutako erreserbetatik heldutakoak– kenduko zaio.

Soberakinak akzioen edo partaidetzen eskuratzeko balioa murriztuko du, a) letra honen bigarren lerroaldean xedatutakoarekin bat”

Hamalau. 39.5.b) artikulua.

“b) Mendekotasun larriko egoeran nahiz mendekotasun handikoan dauden pertsonak ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzen badute, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatzen denaren

arabera, edo bestela, honako baldintza hauek betetzen dituztenek:

Lehen. 65 urtetik gorakoak izatea.

Bigarrena. Mendekotasun moderatua izatea, aipatu 39/2006 Legearekin bat”

Hamabost. 39.5. artikulua, d) letra kentzea.

Hamasei. 43.1.b).a’) artikulua.

“a’) Eskualdatutako balioei dagokien ondare garbiaren balioa, zergaren sortu aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzetik heldu dena”

Hamazazpi. 43.1.c) artikulua, lehenbiziko lerroaldea.

“c) 52. artikuluan aipatzen diren inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen adierazgarri diren akzioen edo bestelako partaidetzen eskualdaketa edo errenboltsoaren kasuan, gehikuntza edo murrizketa zenbatuko da eskuratzeko balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko aldearen arabera; azken hori eskualdaketa edo errenboltsoa egiten den egunean duen likidazio-balio aplikagarriak zehaztuko du edo, horrelakorik ez izatera, argitaratutako azken likidazio-balioak. Likidazio-baliorik ez izatera, eskualdatutako akzioei edo partaidetzei dagokien ondare garbiaren balioa hartuko da, hots, zerga sortu aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzetik heldu dena”

Hemezortzi. 43.1.k) artikulua.

“k) Partaidetzetatik edo baloreetatik heldu diren harpidetza-eskubideen eskualdatzeari dagokionez, alde batera utzita horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan (tresna finantzarioen merkatuei buruzkoan) definitutako balore-merkatu arautuetan negoziatzeko onartu diren ala ez, eta balio horiek sozietateetako edo entitateetako funts berekietako partaidetzaren adierazgarri izanik, lortutako zenbatekoa eskualdatzailearen ondare gehikuntzat joko da, eskualdatzea gauzatzen den zergaldian”

Hemeretzi. 43.2. artikulua, lehenbiziko lerroaldea.

“2. Balore homogeneousi buruzko ondare aldatuen kasuan, honako irizpide hau hartuko da: subjektu pasiboak eskualdatutakoak lehenbizi eskuratutakoak direla”

Hogei. 49.1.1. artikulua, lehenbiziko lerroaldea.

“1. Errentak zerga honi buruzko arauari jarraikiz zehaztuko dira, eta 32.2 eta 34.6 artikuluetan aurreikusitako murrizketak ez dira aplikagarriak izanen. Hona hemen berezitasunak:”

Hogeita bat. 49.3. artikulua.

“3. Zerga honen subjektu pasiboak diren errenta-egozpenaren araubideko entitateko kideek beren aitortpenetan egin ahalko dituzte foru lege honen 32.2 eta 34.6 artikuluetan ezarritako murrizketak”

Hogeita bi. 52.1.c).b') artikulua.

“b') Kapital-murrizketa banatu ez diren mozkinetatik badator, mozkin horien zenbatekoa. Ondorio horietarako, ulertuko da kapital murrizketak, horien helburua edozein dela, lehenbizi, banatu gabeko mozkinetatik datorren kapital sozialaren zatiari aplikatzen eragiten diotela, agortu arte.

Aipatutako muga horretatik gorako soberakina erabiliko da ukitutako akzioen eskuratze-balioa txikiagotzeko, 39.4.a) artikulua lehenez bizi motatako funts berekietako partaidetzaren ondorioz lortutako higigarrien kapitalaren etekin gisa sartuko da, jaulkipen-prima banatzeko erabiltzen den modu berebean”

Hogeita hiru. 54.1. artikulua, c) letra gehitzea.

“c) 25. eta 26. artikuluetan aurreikusitako higiezinaren kapitalaren etekinengatik”

Hogeita lau. 54.2.a) artikulua.

“a) Zergaldi bakoitzean, aurreko idatz-zatiko a) eta c) letretan aipatzen den ondasun higigarrien eta higiezinaren kapitalaren etekinak, aurrezkiaren zati berezian sartzen direnak, elkarrekin eta ez beste ezerekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Integrazioaren eta konpentsazioaren emaitzak saldo negatiboa izanen balu, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan gerta daitekeen saldo positiboarekin bakarrik konpentsatu ahal izanen da”

Hogeita bost. 55.1.Zazpigarrena.a) artikulua.

“a) Aurreko puntuetan jasotzen diren murrizketen gehieneko bateratua ondoren finkatzen diren kopuruetatik txikiena izanen da:

a') Norberak ekitaldian zehar jasotako laneko etekin garbien eta enpresa- eta lanbide-jardueretako baturaren ehuneko 30.

Nolanahi ere, berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko ehuneko 50 izanen da.

b') 6.000 euro urtean.

Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, zenbatekoa 8.000 eurokoa izanen da urtean”

Hogeita sei. 55.3. eta 4. artikulua.

“3. Gutxieneko pertsonalarengatik.

Oro har, gutxieneko pertsonala subjektu pasibo bakoitzeko 3.885 eurokoa izanen da urtean.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 945 euro, hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 2.100 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin baditu.

b) 2.750 euro subjektu pasibo desgaituentzat, frogatzen badute ehuneko 33 eta 65 arteko desgaitasun maila dutela. Zenbateko hori 9.900 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen badu ehuneko 65eko edo goragoko desgaitasuna duela.

4. Gutxieneko familiarrarengatik:

Lehena. Hauxe da gutxieneko familia:

a) Subjektu pasiboarekin bizi eta urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino errenta altuagorik jasotzen ez duen aurreko ahai-de bakoitzeko, errenta salbuetsiak kenduta, zenbateko hauetako bat:

– 945 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letretan aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 2.100 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publiko halako bi izanen da, familia unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu, salbuetsiak bazter utzirik:

– 1.732 euro urtean lehenbizikoagatik.

– 1.837 euro urtean bigarrenagatik.

– 2.625 euro urtean hirugarrenagatik.

– 3.517 euro urtean laugarrenagatik.

– 3.990 euro urtean bosgarrenagatik.

– 4.620 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.310 euro urtean. Zenbateko hori 4.200 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko murrizketa aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

c) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haren adina zein ere den, 2.420 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoek gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: horien urteko errentak, salbuesiak izan ezik, kasuan kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino handiagoak ez izatea, desgaitasunen bat izatea eta duten desgaitasun maila ehuneko 33koa edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa dela egiaztatzea. Zenbateko hori 8.470 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako desgaitasun maila ehuneko 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerroaldean aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren halako bi izanen da, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

Bigarrena. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxienerako familiarak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Ondorengo ahaideen zaintza partekatua kasuetan, berdin jokatuko da.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduekin, gutxienerako familiarra gradurik hurbilenekoei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentarik

(salbuesiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoei aplikatuko baitzaie.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxienerako pertsonal eta familiarra idatz-zati honen eta aurrekoaren arabera aplikatu beharreko zenbatekoen batzura izanen da”

Hogeita zazpi. 55.5. artikulua.

“5. Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik.

Subjektu pasiboak Gizarte Segurantzarekiko kotizazioekin zergaldian ordaindutako kopuruak, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren ehuneko 15 ere, ondoko ezaugarriak dituzten diren pertsonak etxean zaintzeko lanetan aritzen direnkin formalizatutako kontratuen ondorioz:

a) Hamasei urtetik beherako ondorengoak.

b) Subjektu pasiboari eskubidea ematen dioten artikulua honetako 4.1 idatz-zatiko a) eta c) letretan aurreikusitako gutxienerako familiarra aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako terminoen arabera pertsona lagundua izatera duten ahaideengatik murrizketa aplikatzeko.

c) Aurreko ahaideak, anai-arrebak eta osaba-izebak, artikulua honen 4.1 idatz-zatiko a) edo c) letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Murrizketa hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo ehuneko 65eko edo goragoko desgaitasuna frogatzen badu”.

Hogeita zortzi. 55.6. artikulua.

“6. Artikulu honetan aipatutako murrizketak ondoko arau hauei jarraikiz eginen dira:

Lehen. Lehenbizi aplikatuko dira 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak, bai eta hamahirugarren, hamalagarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoak ere.

Bigarrena. Eraitza positiboa bada, 3., 4. eta 5. idatz-zatietan ezarritakoak aplikatuko dira, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Eraitza negatiboa bada, 3., 4. eta 5. idatz-zatietan ezarritakoak zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia gutxitzeko aplikatuko dira, eta kasu honetan ere ezin izanen da negatiboa izan”

Hogeita bederatzia. 55. artikulua 7. idatz-zatia kentzen da.

Hogeita hamar. 57. artikulua.

“57. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati bereziari 55.6. artikulua 2. arauan aipatutako murrizketa aplikatuko zaio, hala egokitzen bada.”

Hogeita hamaika. 59.1. artikulua.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (euroak)	Oinarriaren soberakina gehienez (eurotan)	Tasa (ehunekoak)
		3.825	13,00
3.825,01	497,25	4.674	22,00
8.499,01	1.525,53	9.027	25,00
17.526,01	3.782,28	13.279	28,00
30.805,01	7.500,40	14.675	36,00
45.480,01	12.783,40	7.927	40,00
53.407,01	15.954,20	34.593	41,00
88.000,01	30.137,33	37.000	42,50
125.000,01	45.862,33	175.000	44,00
300.000,01	122.862,33	Gainerakoa	46,00”

Hogeita hamabi. 59.3 artikulua.

“3. Epailearen erabakiaren ondorioz beren seme-alaben mantenturako urtesariak ordaintzen dituzten subjektu pasiboaren kasuan, urtesari horien zenbatekoa likidazio-oinarri orokorra baino txikiagoa bada, 1. idatz-zatian aurreikusitako eskala berezita aplikatuko da, mantenturako ordaintutako urtesariaren zenbateko osoari alde batetik, eta gainerako likidazio-oinarri orokorrari bestetik.

Aurreko leerroaldean aurreikusitakoa ez da aplikatuko zaintza partekatua kasuetan.

Eskala modu berezian aplikatzearen ondorioetarako, mantenturako urtesariaren zenbateko osoak 6.000 euroko muga izanen du seme edo alaba bakoitzeko.”

Hogeita hamahiru. 60. artikulua.

“60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina gehienez (eurotan)	Tasa aplikagarria (ehunekoak)
		10.000	19
10.000,01	1.900	8.000	22
18.000,01	3.660	Gainerakoa	24”

Hogeita hamalau. 62.1.h) artikulua, bigarren leerroaldea.

“Ondorio horietarako, zergaldiko oinarriak 55. eta 57. artikuluetan xedatutakoarekin bat zehaztuko dira, gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatiko murrizketak gehituta, 55.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, honako hauei egindako ekarpenengatiko murrizketak ere gehituko dira: desgaitasuna duten pertsonen aldeko gizarte aurreikuspeneko sistemak, desgaitasuna duten pertsonen ondare babestuen aldeko ekarpenak eta kirolari profesionalen gizarte aurreikuspeneko mutualitateari egindakoak, hamahirugarren, hamalagarren eta hamabosgarren xedapenetan hurrenez hurren xedatutakoarekin bat”

Hogeita hamabost. 62.3. artikulua.

“3. Kenkariak enpresa- eta lanbide-jardueretan.

Zerga honen subjektu pasiboari, enpresa- edo lanbide- jardueretan aritzen badira, sozietateen gaineko zergari buruzko arauetan enpresa inbertsiorako eta enplegu sorkuntzarako ezarririk edo ezartzeko dauden bultzagarri eta pizgarriak aplikatu ahalko zaizkie kuotan egin beharreko kenkari gisa, kenkariaren portzentajeak eta mugak berdinak direlarik.

Dena dela, pizgarri horiek zerga-oinarrien zenbatespen objektiboko araubidean diren subjektu pasiboari baizik ez zaizkie aplikatuko erregelamendu bidez hala ezartzen denean, aipatu araubidearen ezaugarriak eta betebeharrak formalak aintzat hartuta.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 63.2. artikuluan aipatutako mugak ez dira zerga honetan aplikatuko.”

Hogeita hamasei. 62.6. artikulua.

“6. Sindikatu-kuoten kenkaria.

Lan etekinak dituzten subjektu pasiboek sindikatuei ordaindutako kuoten ehuneko 15 kentzen ahalko dute. Kenkari horren oinarria, gehienez ere, 600 eurokoa izanen da urtean.

Kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek sindikatuek Administrazioari aurkeztutako aitortzearen agertu beharko dute,

zerga arloko araudian ezarritako eredu eta epeetan.”

Hogeita hamazazpi. 62.8. artikulua.

“8. Alderdi politikoentzako kuoten eta ekarpenen kenkaria.

Alderdi politikoei, federazioei, koalizioei edo hautesle-elkarteei ordaindutako afiliazio-kuoten eta ekarpenen ehuneko 15eko kenkaria aplikatzen ahalko da, betiere aipatu kuotak eta ekarpenak frogatzen badira, Alderdi Politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 8.1 artikulua araberak. Kenkari horren oinarria, gehienez ere, 600 eurokoa izanen da urtean.

Kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek alderdi politikoen, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkarrekin administrazioan aurkezten dituzten aitortzen agertu beharko dute, zerga arloko araudian ezarritako eredu eta epeetan.”

Hogeita hemezortzi. 62. artikulua 9. idatz-zatia kentzen da.

Hogeita hemeretzi. 64. artikulua.

“64. artikulua. Kenkari zehatz batzuen mugak.

1. 62. artikuluko 4., 6., 8. eta 12. idatz-zatietako murrizketen oinarrien batura ezin izanen da subjektu pasiboaren likidazio-oinarriaren ehuneko 25etik gorakoa izan.”

2. 62. artikuluko 3. eta 7. idatz-zatiek aipatzen dituzten kenkariaren mugak batera aplikatuko zaizkio 61. artikulua ezarritakoaren arabera finkatutako kuota likidoari.”

Berrogei. 65. artikulua.

“65. artikulua. Ondare egoera frogatzea.

62.1 artikulua aipatzen duen kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboak zergaldiaren amaieran duen ondarearen balio frogatuak gutxienez hasieran frogatutakoa baino handiagoa izan beharko du, egindako inbertsioen zenbatekoari dagokionez. Ez dira zenbatuko interesak eta finantziarioaren gainerako gastuak.

Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko zergaldiaren amaieran subjektu pasiboaren ondarearen zati izaten jarraitzen duten ondare elementuek zergaldi horretan izan dituzten balio gehikuntzak edo murrizketak.”

Berrogeita bat. 75.6 eta 7 artikulua.

“Seigarrena. 71.1. artikuluko a) eta b) letrak aipatzen dituzten familia unitateen kasuan, 55.6 artikuluko 2. erregela aplikatzearen ondorioz

ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan duenean osoki aplikatu aipatu 55. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz-zatietan aipatzen diren murrizketak, gerakina beste ezkontidearen gutxieneko pertsonalari eta familiarrari erantsiko zaio.

Zazpigarrena. 71.1.c) artikuluan aipatzen diren familia unitateen kasuan, aitari edo amari dagoen gutxieneko pertsonala (55.3 artikulua) 2.520 euro handituko da. Igoera hori ez da gertatuko, aita eta ama elkarrekin bizi badira edo zaintza partekatua dagoenean.

Aipatu goera osotara aplikatuko da familia unitateko kide guztien zerga-oinarrien arteko batura 50.000 eurokoa edo handiagoa denean. Batura hori 50.000 eta 70.000 euro artekoa bada, aplikatuko den goera ehuneko 50ekoa izanen da. Aipatu batura 70.000 eurokoa edo handiagoa bada, ez da goerarik aplikatuko.”

Berrogeita bi. Hamalagarren xedapen gehigarria, 2. idatz-zatia, a) letra, bigarren lerroaldea.

“55.6 artikuluko 1. arauaren ondorioetarako, murrizketa horiek 55.1 artikuluan ezartzen direnkin batera egingo dira.”

Berrogeita hiru. Berrogeigarren xedapen gehigarria indargabetu da.

Berrogeita lau. Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Likidazio-oinarri orokorraren karga 2015. urterako.

2015. urterako ondorioekin, likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren kargatasak aplikatuko zaizkio, 59.1 artikuluan jasotakoaren ordez:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina zenbateraino (€)	Tasa (ehunekoak)
		3.825	13,00
3.825,01	497,25	4.674	22,00
8.499,01	1.525,53	9.027	25,00
17.526,01	3.782,28	13.279	28,00
30.805,01	7.500,40	14.675	36,00
45.480,01	12.783,40	7.927	40,00
53.407,01	15.954,20	34.593	43,50
88.000,01	31.002,16	37.000	45,00
125.000,01	47.652,17	175.000	46,50
300.000,01	129.027,17	Gainerakoa	48,50”

Berrogeita bost. Indarrik gabe uzten dira seigarren eta zazpigarren xedapen iragankorrak.

Berrogeita sei. Hamahirugarren xedapen iragankorra, azken lerroaldea.

“55.4 artikuluan xedatutakoaren arabera gutxiengo familiarragatik egiten den murrizketa horri 55.6 artikuluan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio”

Berrogeita zazpi. Hamaseigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Hamaseigarren xedapen iragankorra. Ondasun higiezinaren kapitalaren etekinen gastu kengarriak 2015. eta 2016. urteetan.

1. 2015. urtean, ehuneko 50ean murrizten ahaliko dira higiezinaren kapitalaren etekin osoen interesak eta ordaindutako gainerako finantzaketa gastuak, maizterraren ohiko etxebizitzarako erabiliko diren ondasun higiezinak eskuratzeko edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen gainekoak, betiere, gainerako gastu kengarriei batuta, 25.2 artikuluan ezarritako muga gainditu gabe.

2. 2016. urterako, aurreko idatz-zatian ezarritako ehunekoa ehuneko 25 izanen da”

Foru Lege proiektua, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Nafarroako Gobernuak, 2014ko abuztuaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Par-lamentura igorri du Foru Lege proiektua, sozietate-en gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea Foru Lege proiektua, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Ba-tzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko urriaren 3an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artiku-luan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Garrantzi handia baitu sozietateen gaineko zergak enpresek inbertsiorako, finantziatorako eta enplegua sortzeko hartzen dituzten erabakietan, etengabe ebaluatu behar da ea zerga horrek bete-tzen dituen esleituak dituen helburu eta eginkizu-nak, izan ere, dirua biltzeko eta jarduera ekonomi-

koa kontrolatzeko xedeez gainera, sozietateen mozkinen gaineko kargak lagundu behar du pro-dukzioa sustatzen, ekonomia hazten eta enplegua sortzen. Bestalde, ekonomia ireki eta lehiakor honetan, kapitalak mugitzeko erraztasun handia duten merkatuetan txertatuta baitago, ezinbeste-koa da Foru Komunitateak ezartzen duen sozietate-en gaineko zergak kontuan hartzea gure inguru-neko ekonomietan dauden kargak. Hazkunde ekonomiko jarraituak enpresa sare kementsua iza-tea eskatzen du, eta horrek berarekin dakar enpre-setako inbertsio erabakiak erraztea eta erakargarri bihurtzea.

Ingurune horretan, eta Nafarroako ekonomia aktibatzeko eta enplegu sorrera bultzatzeko helbu-ruz, betiere zerga-bilketako nahikotasuna babes-tuz, foru lege proiektuak aldaketa garrantzitsuak egiten ditu sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legean.

Zenbait zerga onura arrazionalizatu eta ken-tzeko xedez, zerga-oinarria kontabilitateko emai-tzari hurbiltzea bilatzen da. Zergen aldetik kenga-rria den amortizazioa aktiboan benetako balio-galera ekonomikoari hurbiltzea joera finkatua da gure ingurune herrialdeetan.

Hala, amortizazio irizpideei dagokienez, berrikuntza hauek sartu dira:

– Kendu egin da ibilgetu materialeko elementu berrien eta enpresa txikiek ondasun higiezinetan egiten dituzten inbertsioen amortizazio azkartua, hau da, taulen arabera amortizazioaren gehie-neko koefizientea bider 1,5 eginik ateratzen den koefizientea aplikatzea.

– Kendu egin da berariazko amortizazio fiskala balio-bizitza zehaztuko ibilgetu ukiezinean eta, hala, kengarriak izanen dira, soil-soilik, balio-bizi-tza zehaztuko ibilgetu ukiezinaren amortizatorako zuzkidurak, benetako balio-galerari dagozkionak.

– Indargabetu egin da 16. artikulua, amortiza-zio askatasunaren kasuak ezabatzeko helburuz.

– Finantza errentamenduaren araubidean, kendu egin da ondasunaren kostua berreskura-tzeari dagozkion kuoten amortizazio azkartua: orain arte, kuota horien amortizazioak muga bat zuen, hots, amortizazio taulen gehieneko koefi-zientearen bikoitza aplikatzea ondasunaren kos-tuari. Hemendik aurrera, amortizazio linealaren gehieneko koefizientea izanen da muga.

– Murriztu egin da merkataritza funtsaren eta balio-bizitza zehaztugabeko ibilgetu ukiezinaren berriazko amortizazio fiskala. Kenkari fiskalaren urteko gehieneko muga %10etik %3ra pasatu da.

Baloreak hondatzearen ondoriozko galeretan balore zuzenketak egiteari dagokionez, kendu egin da baloreak hondatzearen ondoriozko galeraren kalkulua fiskalaren berriazko formula, kasu hauek: merkatu arautu batean kotizatzen ez duten entitateen kapitalaren balore adierazgarri kasuan, bai eta taldeko edo taldeaniztuneko entitateek eta elkartuek kapitalean dituzten partaidetzen kasuan ere. Baloreak hondatzearen ondoriozko galera hori kendu da galeren kenkari bikoitza zegoelako: hasiera batean, galerak dituen entitate partaidetuan eta, gero, inbertsio finantzarioaren jabe den entitatean, hondatzearen ondoriozko zuzenketa egitean. Neurri honekin, araudi fiskala kontabilitatekoari eta gure ingurune herrialde-takoari hurbiltzen zaie.

Aldaketa garrantzitsuak egin dira, halaber, sozietateen gaineko zergan kengarriak diren gastuen kontsiderazioan.

Alde batetik, ez-kengarriztat jotzen dira honako hauek: eskudiruzko ordainketen mugak betetzen ez dituzten gastuak, entitateen kapitalean edo funts berekietan dagoen partaidetzaren balore adierazgarriak hondatzearen ondoriozko galerak, atzerrian establezimendu iraunkor baten bitartez lortzen diren errenta negatiboak, salbu eta establezimendu hori eskualdatzearen edo jarduera uztearen kasuan, atzerrian aritzen den aldi baterako enpresa elkarte bateko kide diren enpresek izaten dituzten errenta negatiboak, salbu eta bertako partaidetza eskualdatzen denean, edo iraungitzean. Azkeneko hiru kasu horietan saihestu nahi da galeren kengarritasun bikoitza: lehenik, entitatearen edo establezimendu iraunkorraren egoitzan; eta bigarrenik, inbertsioaren edo etxe nagusiaren egoitzan.

Beste alde batetik, mugak ezarri zaizkio harreman publikoen (jatetxeak, bidaiak eta ostalaritza) eta oparien ondoriozko gastuen kengarritasunari.

Azkenik, mugak eta murrizketak ezarri zaizkio automobilekin zerikusia duten gastuen kengarritasunari. Orokorrean, automobilak eta beren atoiak, ziklomotorrak eta motorrak erosi eta erabiltzearekin zerikusia duten gastuen ehuneko 50 izan da kengarria, gehieneko muga batzuk ezarri ibilgailuko eta urteko. Dena dela, entitateak modu sinesgarrian frogatzen badu jarduera ekonomiko bat garatzeko soilik erabiltzen dela ibilgailua, automobilak erosi eta erabiltzearekin lotutako gastuak osorik izanzen dira kengarriak, nahiz eta horiek ere

gehieneko mugak izanzen dituzten ibilgailuko eta urteko.

Enpresaren zorra birfinantzatzearen eta berregituratzearen arloan, oro har ezartzen da ez dela tributaziorik izan zorrak kapitalizatzen diren kasuetan, salbu eta hartzekodunaren eratorpen-eskuratzeko baten xede izan denean zorra, betiere haren balio nominalaz besteko balio batekin. Horrela, foru legean espresuki jasotzen da irizpide bat, jada administrazio doktrinak onartua zuena zorrak entitate lotuen artean kapitalizatze kasu batzuetan. Ezartzen da ezen, kapital handitzea egiten duen entitatearentzat, hau da, zordunarentzat, kapitala kredituen konpentsazioz handitzeko eragiketen balorazio fiskala egin behar dela handitze horrek merkataritza ikuspegitik duen zenbatekoaren bidez, kontabilitateko balorazioa zein den alde batera utzita. Hala, nahiz eta, orokorrean, entitateei emandako elementuak eta kontraprestazioz jasotako baloreak merkaturako balioaz baloratu, salbuesten dira kreditu konpentsazioz egiten diren kapital handitzeak. Xedapen berri honekin saihesten da zordunak sarrera fiskal bat konputatzea, alde batera utzita nola kontabilizatzen den zorraren kapitalizazioa, hau da, zordunak kontabilitateko sarrera bat erregistratu ala ez, eta, orobat, alde batera utzita hartzekodunaren eta zordunaren artean alde aurreko lotura dagoen ala ez.

Ildo beretik, fiskalitatea ez dadin oztopo izan oro har egiten diren berfinantziario eragiketentzat, zergari buruzko foru legea aldatu da Konkurtso Legea aplikatu ondoko keta eta itxaroteen ondoriozko errenten tratamendu fiskalari dagokionez. Horrela, kontuan harturik bi eragiketa horiek (keta eta itxaroteak) ez dutela handitzen hartzekodunen konkurtsoan dauden entitate zordunen ahalmen fiskala, aldi bateko egozpen sistema ezarri da zerga-oinarrian sortutako sarrerari dagokionez, ondoren zergaren inguruan erregistratzen joaten diren finantza gastuen arabera. Horiek horrela, konkurtsoko zordunaren keta eta itxaroteen kontabilitateko erregistroari dagokion sarrera, konkurtsoko araudia aplikatzearen ondoriozkoa, zordun horren zerga-oinarrian egotziko da, zor beretik etortzen diren finantza gastuak nola erregistratzen diren ikusirik, eta sarreraren mugara bitarte.

Fiskalitatea kontabilitateari hurbiltzeko helburu horrekin, baita doikuntza fiskalak kontabilitateko emaitzara ahalik eta gehien murrizteko helburuz ere, kendu egin da monetaren balio-galeraren ondoriozko zuzenketatik egiten den kenkaria.

Mugak ezarri dira entitate lotuen artean edo merkataritza talde berean sartuta daudenen artean egiten diren eskualdatzeen ondoriozko errenta negatibo batzuen aplikazioan eta egozpenean.

Horretarako, ezarri da entitateen kapitalean edo funts berekietan izaten den partaidetzaren balore adierazgarriak eskualdatzean sortzen diren errenta negatiboak, edo establezimendu iraunkor bat eskualdatzean sortzen direnak, eskuratzaillea merkataritza talde bereko entitatea denean, zergaldi honetan egotziko direla: balore horiek edo establezimendu iraunkorra sozietateen taldetik kanpoko hirugarrenei eskualdatzen zaizkienean, edo entitate eskualdatzailleak edo eskuratzailleak taldeko kide izateari uzten dionean. Erregulazio hau ez da aplikatuko entitatea iraungitzen denean edo establezimendu iraunkor eskualdatuaren jardura uzten denean.

Zerga-oinarriaren perimetroa zabaltzearen, murriztu egin da likidazio-oinarri negatiboaren konpentsazio epea, hamar urtetara. Gaur egungo hamabost urteko epea gehiegizkoa dela uste da.

Bestalde, gure ingurune herrialdeetan hartutako erabakiekin bat, eta inbertsioa bultzatzeko eta enplegua sortzeko azken helburuari jarraikiz, karga-tasa orokorra ehuneko 20ra murriztu da, alde batera utzita zein den subjektu pasiboaren fakturazio bolumena. Denen ahotan dago sozietateen gaineko zergaren gaur egungo tasa nominalak altuegiak direla Europar Batasuneko herrialdeetan daudenean alderatuta, eta horrek zaildu egiten duela inbertsioak erakartzea. Hala bada, aintzat hartzen dira aditu ugariaren iradokizunak eta, beraz, karga-tasen murrizketa nabarmenarekin batera, kendu egin dira ia kenkari guztiak kuotan, salbu eta kasu batzuetako aktibo finko berriengatikoko kenkaria, I+G+Brena, biomasako instalazio termikoena eta enplegu sorrerarena.

Ildo berean, gutxieneko tributazioaren kontzeptua ezarri da. Oso berrikuntza garrantzitsua da, eta foru lege proiektuaren oinarri den planteamendu orokorra osatzen du: zerga-tasen murrizketa garrantzitsua eta kuotako ia kenkari guztiak kentzea.

Gutxieneko tributazioa honela definitzen da: zerga-oinarriaren murrizketak aplikatzeak (hau da, inbertsioetarako Erreserba Bereziari eta aurreko zergaldietako likidazio-oinarri negatiboari dagozkienak), bai eta kuotaren gaineko kenkariak aplikatzeak ere (salbu eta ikerketa eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatikoko kenkariak) ezin izanen dute benetako kuota hau sortu: zerga-oinarriaren gainean ehuneko 10 aplikatuta ateratzen den zenbatekotik beherako benetako kuota. Kontzeptu horren arabera, karga-tasen murrizketa arintzeko, eta posibleak dituzten entitate guztiek egokiro tributa dezaten, gutxieneko zorua ezarri da tributaziorako, hots, zerga-oinarriaren ehuneko 10. Gutxieneko zoru horrek salbuespen bakar bat

izanen du, alegia, ikerketa eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatikoko kenkaria. Dena dela, entitateak enplegu mugagabea sortzen badu, gutxieneko tributazioaren ehuneko 10eko portzentajea ehuneko 8ra jaitsiko da. Hori gertatuko da baldin eta subjektu pasiboak zergaldian gutxienez ehuneko 5 handitzen badu plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteekin alderatuta.

Lege proiektuak, zergak dituen onura fiskalen arrazionalizazio garrantzitsua egiteko ildo etengabea, kendu edo aldatu egiten ditu kuotako kenkari ia guztiak. Hala, honako hauek bakarrik jarraitzen dute indarrean: ibilgetu materialeko elementu berrietan inbertsioa egiteagatikoko kenkaria (eta hala ere muga nabarmenekin, soilik aplika baitezakete enpresa berriek beren lehen hiru urteetan), ikerketa zientifikoko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatikoko kenkaria, enplegua sortzeagatikoko, biomasako instalazio termikoetan inbertsioak egiteagatikoko, bai eta arrisku-kapitaleko entitateetan eta enpresak sustatzeko sozietateetan inbertsioak egiteko kasu batzuk ere. Beharrezkotzat jotzen da zenbait kenkari aldatu eta kentzea, baita horiek aplikatu ahal izateko mugak ezartzea ere, sozietateen gaineko zergan tributu karga zuzentasun eta justizia handiagoz banatzeko xedez.

Aipatu dena galarazi gabe, enplegua sortzeagatikoko kenkaria ez da desagertu eta, gainera, nabarmen handitu da. Hala, kenkari hori 4.200 eurotik 5.000 eurora arte handituko da pertsona eta urteko, baldin eta zergaldian zehar plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoan gehikuntzarik izan baldin bada, zergaldiaren aurreaurreko hamabi hilabete epean plantillan kontratu mota hori zutenen batez bestekoarekin alderatuz gero.

Kuotako kenkariaren inguruan egindako aldaketan amaiera gisa, idazketa berria eman zaio 72. artikuluari, arau komunak berriz ere erregulatzeko VI. tituluko IV. kapituluaren aurreikusitako kenkariaren aplikazioari dagokionez, hots, pizgarriengatikoko kenkariak. Berrikuntzarik nabarmenena da ehuneko 35etik 25era jaisten dela kenkari guztien kuota likidoaren muga, I+G+Bren ondoriozko kenkarian izan ezik. Horrela bada, salbuespen horrekin, pizgarriengatikoko kenkariak ezin izanen dute gainditu, oro har hartuta, kuota likidoaren ehuneko 25.

Azkenik, bi alderdi tekniko nabarmendu behar dira. Alde batetik, bi xedapen gehigarri (hogeita hamazazpigarrena eta hogeita hemezortzigarrena) gehitu dira; lehenak, zenbait berrinbertsio zein baloretan gauzatzen ahal diren zehazten du.

Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarri berri honen eragile izan da 70 bis.3 artikulua indargabetzea, hartan zehazten baitziren era honetako baloreak. Indargabetze horren ondorioz, xedapen gehigarri berri hau ezarri da, indargabetutako 70 bis.3 artikuluko moduan arautu ahal izateko balore horiek.

Halakoxe helburua bilatzen da hogeita hemezozigarren xedapen gehigarri berria sartzean, enpresa txikiaren eta mikroenpresaren kontzeptua zehazten baitu. Kontzeptu hori 50.1.b) artikuluan araututa zegoen (birmoldatu egin da artikulua horren edukia). Enpresa txikiaren eta mikroenpresaren kontzeptu berari eustearren, xedapen gehigarri berri hau sartu da.

Bestalde, hiru xedapen iragankor gehitu dira, xede hauekin:

a) Araubide iragankorra ezartzea, oinarri negatiboen konpentsaziorako araubide berriak indarra hartzean konpentsatzeke zeuden likidazio-oinarri negatiboentzat. Konpentsatzeke dauden oinarri negatibo horiek murrizten ahalko dituzte xedapen iragankorrak indarra hartu ondoko hamar urteen barnean amaitzen diren zergaldietako zerga-oinarri positiboak.

Dena den, argitu behar da ezin izanen dutela konpentsaziorik izan 2015eko urtarrilaren 1ean hasten den zergaldiaren aurrekoan konpentsatzeke dauden likidazio-oinarri negatiboek, baldin eta, hamar urteak amaitu baino lehen, 15 urte baino gehiago pasatu badira sortu ziren egunetik hasita.

b) Araubide iragankorra ezartzea, aplikatzeke dauden kuotako kenkariarentzat, 2015eko urtarrilaren 1aren aurretik hasitako zergaldiei dagokienez. Kuotako kenkarietan egindako aldaketan ondorioz (batzuk kendu eta beste batzuk aldatu), beharrezkoa da araubide iragankor bat ezartzea egoera horiek argitzeko. Xedapen iragankor honek ezartzen du, ezen, 2015eko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldiaren aurrekoan aplikatzeke zeuden kuotako kenkariak gauzatzen ahalko direla 72. artikuluan ezarritako mugak eta baldintzak betez, artikulua horrek 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen duen testuaren arabera.

c) Araubide iragankorra ezartzea, entitateen kapitalean edo funts berekietan dagoen partaidetzaen balore adierazgarriak hondatzearen ondoriozko galerentzat, bai eta atzerrian establezimendu iraunkor baten bitartez lortzen diren errenta negatiboentzat ere, betiere 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan sortuak badira.

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzea.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikulua hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. Kendu egin da 14.7 artikulua.

Bi. 15. artikulua.

“15. artikulua. Balio-bizitza zehaztua duen ibilgetu ukiezinaren amortizazioa.

1. Kengarriak izanen dira balio-bizitza zehaztua duen ibilgetu ukiezina amortizatzeke zuzkidurak, haren benetako balio-galerari dagozkionak.

2. Aktiboa errentak ematen hasten denetik aurrera hasiko da amortizazioa.”

Hiru. Indarrik gabe utzi da 16. artikulua.

Lau. 17.3 artikulua.

“3. Entitate errentariarentzat, zergatik ken litekeen gastutzat joko da:

a) Entitate horrek jasandako finantza zama.

b) Ondasunaren kostua berreskuratzeari dagozkion finantza errentamenduaren kuotak, salbu eta kontratuak aktibo ez-amortizagarriak dituen xede gisa. Baldintza hori eragiketaren xede den ondasunaren zati batean bakarrik gertatzen bada, bakarrik ken daiteke amortiza daitezkeen elementuei dagokien proportzioa, behar den kontratuan bereizita agertu beharko duena.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren arabera, kengarria den zenbatekoak ez du honako hau gaindituko: ofizialki onetsitako amortizazio taulen arabera, ondasunari dagokion amortizazio linealeko gehieneko koefizientea ondasunaren kostuari aplikatuta ateratzen dena. Soberakina hurrengo zergaldietan kentzen ahalko da, aipatu muga horren barnean. Muga hori kalkulatu ahal izateko, ondasuna abian jartzeko unea hartuko da kontratuan.

Aurretik errentariak errentatzaileari ondasuna zuzenean edo zeharka eskualdatu badio, lagapen-hartzaileak ondasun hori amortizatzen segituko du eskualdaketa gauzatu aurretik zituen baldintza eta balio berberetan.”

Bost. Kendu egin da 17.4 artikulua.

Sei. 20. artikulua.

“20. artikulua. Balore zuzenketak: baloreak hondatzearen ondoriozko galerak.

1. Kengarriak izanen dira merkatu arautuetan kotizatzeke onartzen diren zorraren balore adierazgarriak hondatzearen ondoriozko galerak, betiere galera osoa izanik muga. Galera oso hori, balorearen aldaketa positibo eta negatiboak zenbaturik, subjektu pasiboak dituen eta merkatu horietan kotizatzeke onartuak diren baloreen multzoak zergaldian jasandakoa da.

Ez dira kengarriak izanen errenboltso-balio ziu-rra duten, merkatu arautuetan kotizatzeke onartuak ez diren edo paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan kokaturiko merkatu arautuetan kotizatzeke onartuak diren balore hondatzeen ondoriozko galerak.

2. Egoitza Espainian ez duten entitateen funts berekietan den partaidetzaren balore adierazgarriak eskuratzen direnean, eta horien errentak 62. artikuluan ezarritako salbuespenaz baliatzeko modukoak badira, partaidetzaren eskuratze prezioaren eta eskuratze egunean entitate partaidetuak (partaidetzaren proportzioan) daukan ondare garbiaren arteko diferentzia honako hauei egotziko zaie: egoitza Espainian ez duen entitatearen ondasun eta eskubideei, Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hura garatzen duten arautetan ezarritako integrazio globalaren metodoa aplikatuz, eta egotzi ez den diferentzia zatia zerga-oinarritik ken daiteke, urtero zenbateko horren ehuneko hamar gehienez, salbu eta 67. artikuluan adierazitako kenkariaren oinarrian sartu bada, deusetan galarazi gabe aplikagarri diren kontabilitate arautetan ezarritakoa.

Zenbaki honetan ezarritako kenkaria ez zaie aplikatuko Espainian egoitzarik ez duten entitateen funts berekietako partaidetzako baloreen eskurapenei, 2007ko abenduaren 21etik aurrera egindakoei, galarazi gabe Europako Batzordearen 2009ko urriaren 28ko Erabakiaren 1. artikuluko 3. idatz-zatian eta Batzordearen 2011ko urtarrilaren 12ko Erabakiaren 1. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoa, atzerriko partaidetzak eskuratzeke finantza merkataritzako funtsaren zerga-amortizazioari buruzkoa (C-45/2007 auzia), 2007ko abenduaren 21a baino lehen hitzartutako betebeharrak ezeztatzeko batekin lotutako eskurapenei dagokienez. Nolanahi ere, baldin eta egoitza Europar Batasuneko ez den estatu batean duten entitateen funts berekietan partaidetzen gehiengoa ekartzen duten baloreen eskurapenak badira, 2007ko abenduaren 21aren eta 2011ko maiatzaren 21aren artean eginak, zenbaki honetan ezarritako kenkaria aplikatzen ahalko da, baldin eta frogatzen bada badihala oztopo juridiko esplizituak enpresen mugaz gaindiko konbinazioetarako, aipatu den Batzordearen

2011ko urtarrilaren 12ko Erabakiaren 1. artikuluko 4. eta 5. idatz-zatietan ezarritakoaren arabera.”

Zazpi. 21.1 eta 2 artikulua.

“1. Kengarria izanen da merkataritza funtsei dagokien ibilgetu ukiezinaren jatorrizko eskuratze prezioa, haren zenbatekoaren ehuneko 3ko gehi-eko muga izanik urtean; betiere, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kostu bidez eskuratzearen ondorioa izatea.

b) Entitate eskuratzaila eta eskualdatzaila sozietate talde baten parte ez izatea Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, zeinahi direla egoitza eta urteko kontu bate-ratuak formulatzeko betebeharra. Bi entitateak talde batekoak badira, entitate eskualdatzailak ibilgetua eskuratzean ordaindutako prezioari aplikatuko zaio kenkaria, lotura gabeko pertsona edo entitateetatik eskuratu bada.

c) Erreserba erabilezin bat hornitu izatea merkataritzako legerian ezarritako moduan. Erreserba hori hornitu ezin bada, kenkaria eginen da baldin eta erreserba hurrengo ekitaldietako lehen mozkinen kargura hornitzen bada.

Kontabilitateari begira, kenkari hori ez da zertan galera eta irabazien kontuan egotzi. Ondorio fiskaletarako, kendutako kopuruek merkataritza funtsaren balioa gutxituko dute.

2. Aurreko zenbakiko a) eta b) letretan aurreikusitako baldintzak betetzen direnean, zehaztu gabeko balio-bizitzako ibilgetu ukiezina kengarria izanen da, haren ehuneko 3ko gehi-eko muga izanik urtean.

Kontabilitateari begira, kenkari hori ez da zertan galera eta irabazien kontuan egotzi. Ondorio fiskaletarako, kendutako kopuruek ibilgetuaren balioa gutxituko dute.”

Zortzi. 24. artikulua.

“24. artikulua. Zergetan kendu ezin diren gastuak.

1. Orokorki, gastuak ezin dira zergetatik kendu diru-sarrerekin korrelazioan ez badaude.

Bereziki, honako hauek ez dira kengarriak zergan:

a) Funts berekien ordainketa zuzena edo zeharkakoa direnak.

b) Sozietateen gaineko zergaren kontabilizazio-tik eratorriak. Ez dira sarreratzat hartuko kontabilizazio horretatik datozenak.

c) Zigor eta administrazio isun eta zehapenak, premiamendu errekarua eta aitorten-likidazioak eta autolikidazioak epez kanpo aurkezteagatik errekarua.

d) Joko-galerak.

e) Dohaintzak eta eskuzabaltasunak, honako hauetan ezarritakoa galarazi gabe: artikulua honen 4. zenbakian, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legean ezarritakoa.

Honako gastu hauek ez dira letra honen barrukoak izanen: bezero edo hornitzaileekiko harreman publikoen ondorio direnak, ohitura eta azturen arabera enpresako langileekin egiten direnak, ondasunen salmenta edo zerbitzuen ematea sustatzeko zuzenean edo zeharka egiten direnak, ez eta diru-sarrerekin korrelazionatuak daudenak ere, artikulua honen 2. artikuluan ezarritako salbuespenekin.

f) Arau bidez, beren izaera dela eta, paradisu fiskaltzat hartzen diren herri edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin zuzenean edo zeharka egindako eragiketei dagozkien zerbitzu gastuak, edo paradisu fiskal horietan egoitza duten pertsona edo entitateen bitartez ordaintzen direnak, salbu eta subjektu pasiboak frogatzen badu sortutako gastuak benetan egindako eragiketa edo transakzio bati erantzuten diola, arrazoi ekonomiko justifikatuengatik.

g) Zergaldian sortutako finantza gastuak, taldeko entitateekin diren zorren ondoriozkoak, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, egoitza non den eta urteko kontu bateratuak formulatu beharra alde batera utzita, horien xede izanik taldeko beste entitate batzuei erostea edozein motatako entitateen kapitaleko edo funts berekietako partaidetzak, edo taldeko beste entitate batzuen kapitalean edo funts berekietan ekarpenak egitea, ez badu behintzat subjektu pasiboak frogatzen arrazoi ekonomiko baliozkoak daudela eragiketa horiek egiteko.

h) Hartzaile bakoitzeko 1.000.000 eurotik gorakoak diren gastuak, nahiz eta zenbait zergalditan ordaindu, horien jatorria denean lan harremanaren amaiera, arrunta edo berezia, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 14.2.c) artikulua aipatzen duen merkataritza harremanarena, edo biena. Ondorio horietarako, sozietate talde berekoak diren beste entitate batzuek ordaindutako zenbatekoak konpu-

tatuko dira, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ageri diren inguruabarrak izaten direnean.

i) Eroskeria.

j) Eskudiruzko ordainketei buruzko mugen araudian xedatutakoa betetzen ez duten eragiketen ondoriozko gastuak (7/2012 Legea, urriaren 29koa, iruzurraren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzeko, 7. artikulua).

k) Entitateen kapitaleko edo funts berekietako partaidetzaren balore adierazgarriak hondatzearen ondoriozko galerak.

l) Atzerrian establezimendu iraunkor baten bidez lortutako errenta negatiboak, haren eskualdaketa egiten denean edo jarduera uzten denean izan ezik.

m) Atzerrian aritzen den aldi baterako enpresa elkarte bateko kide diren enpresek izaten dituzten errenta negatiboak, salbu eta bertako partaidetza eskualdatzen denean, edo iraungitzean.

Nazioarteko zerga gardentasunari dagozkion xedapenak ez dira aplikatuko zergaren aldetik kengarriak ez diren gastuen errentei dagokienez.

2. Artikulu honen 1.e) zenbakiko bigarren lerroaldean aipatutako gastuak kengarriak izanen dira, diru-sarrerekin lotuta dauden neurrian, honako zenbateko eta baldintza hauen arabera:

a) Jatetxe, ostalaritza, bidaiaria eta joan-etorri zerbitzuei dagozkien gastuen ehuneko 50, kontzeptu horien multzorako gehieneko muga negozio kopuruaren ehuneko 1 izanik.

b) Erregaluak eta gainerako opariak, baldin eta jasotzaile eta zergaldi bakoitzeko zenbatekoa 300 eurokoa bada gehienez, eta jasotzailearen nortasuna agiri bidez jasota geratzen bada. Aipatu gastuek ezarritako zenbateko hori gainditzen badute, zenbateko horretara bitarte izanen dira kengarriak.

3. Garraio elementuak erabiltzearen ondoriozko gastuen inguruan aplikatu beharreko arauak:

a) Automobilak eta beren atoiak, ziklomotorrak eta motorrak erosi, errentan izan, konpondu, mantendu, amortizatu eta erabiltzearekin zerikusia duten gastuen %50 izanen da kengarria, gehieneko muga hauekin ibilgailuko eta urteko:

Lehena. Amortizazio, errentamendu edo lagapen gastuen kontzeptuan, zergadunak erabilitako amortizazio portzentajea 25.000 euroz biderkatuta ateratzen den zenbatekoaren %50a.

Bigarrena. Erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuei dagokienez, aipatu ibilgailuak erostearrekin lotutako finantza gastuak barne, 4.000 euro.

Pertsona batek aldi berean erabiltzen baditu letra honetan aipatu ibilgailuetako bat baino gehiago, aipatu diren mugak pertsona eta urteko aplikatuko dira, zenbat ibilgailu erabiltzen dituen kontuan hartu gabe.

b) Entitateak modu sinesgarrian frogatzen badu jarduera ekonomiko bat garatzeko soilik erabiltzen dela ibilgailua, edo erabiltzen duen pertsonari egotzi zaizkiola gauzako ordainketa gisa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 16. artikuluan ezarritakoarekin bat, aurreko a) letrako gastuak osorik izanen dira kengarriak, muga hauekin:

Lehena. Amortizazio, errentamendu edo lagapen gastuen kontzeptuan, zergadunak erabilitako amortizazio portzentajea 25.000 euroz biderkatuta ateratzen den zenbatekoa.

Bigarrena. Erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuei dagokienez, aipatu ibilgailuak erostearrekin lotutako finantza gastuak barne, 7.000 euro.

c) Aurreko a) eta b) letrak aipatzen dituzten amortizazio portzentajeak ofizialki onetsitako amortizazio tauletatik ateratzen direnak izanen dira.

d) Zergadunak ez badu ibilgailua urtearen zati batean erabili, arau honetan aipatu mugak erabileraren arabera araberako proportzioan kalkulatu dira.

e) Hemen aipatzen diren ibilgailuak erosi, errentan izan, konpondu, amortizatu eta erabiltzearekin zerikusia duten gastuak izanen dira kengarriak:

Lehena. Salgaien garraioan erabiltzen diren ibilgailu mistoak.

Bigarrena. Bidaiariak garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen direnak ordain baten truke.

Hirugarrena. Fabrikatzaileek probetan, saiakuntzetan, erakustaldietan edo salmenten sustapenean erabiltzen dituztenak.

Laugarrena. Gidari edo pilotuentzako irakaskuntza zerbitzuetan erabiltzen direnak ordain baten truke.

Bosgarrena. Zaintza zerbitzuetan erabiltzen direnak.

Seigarrena. Ordain baten truke alokatzeko jardueran soilik eta benetan erabiltzen diren ibilgai-

luak, jarduera horretan ohikotasunez aritzen diren entitateen bitartez.

f) Merkataritza agenteek edo ordezkariak beren joan-etorri profesionalean erabiltzen dituzten ibilgailuak erosi, errentan izan, konpondu, mantendu, amortizatu eta erabiltzearekin zerikusia duten gastuak kengarriak izanen dira.

g) Aisiako ontzi edo itsasontziak edo ur kirole-takoak edo aireontziak erosi, errentan izan, konpondu, mantendu, amortizatu eta erabiltzearekin zerikusia duten gastuak ez dira kengarriak izanen, salbu eta modu sinesgarrian frogatzen denean jarduera ekonomiko bati lotuta daudela, halakoetan zenbaki honetako a), b), c), d) eta e) letratan ezarritako mugak eta baldintzak aplikatuko baitzaizkie.

4. Kengarriak izanen dira dohaintzan ematen diren ondasunen kopuru ordainduak eta kontabilitateko balioa, honako entitate dohaintza-hartzaileek berezkoak dituzten helburuen lorpenari aplikatu ahal bazaizkio:

a) Eskualdeko Industria Garapenerako Sozietateak.

b) Nafarroako federazioak, Espainiakoak, autonomia erkidegoen esparrukoak eta kirol klubak, Kiroleko Sozietate Anonimoek kirol jarduera ez-profesionalak sustatu eta garatzeko ematen dizkieten kopuruei dagokienez, baldin eta aipatu entitateen artean kostu bidezko kontratu-lotura ezarri bada, beharrezkoa dena kirol klub eta federazio horien helburua eta xedea betetzeko. Letra honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, orobat, Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan ageri diren klubei.

Zenbaki honetan aipatzen diren eskualdaketek ez dute ekarriko entitate eskualdatzailearentzat errenta positibo edo negatiboan lorpena, 33.1 artikuluan ezartzen direnena.

Bederatzi. 25. artikulua, azkeneko lerroalde bat gehitzea.

“Kredituen konpentsazio bidez kapitala handitzeko eragiketak zergaren aldetik baloratuko dira handitze horrek merkataritza ikuspegitik duen zenbatekoaren arabera, kontabilitateko balorazioa zein den alde batera utzita.”

Hamar. 26.1.b) artikulua.

“b) Entitateei ekarritakoak eta kontraprestazioan hartutako baloreak, aurreko artikuluko azken lerroaldean aurreikusitako kasuan izan ezik”

Hamaika. Indarrrik gabe utzi da 27. artikulua.

Hamabi. 28.2.a) artikulua, bigarren lerroaldea.

“Dokumentazio hori ez zaie pertsona edo entitatei eskatuko, baldin eta kasuan kasuko zergaldian negozio-zifraren zenbateko garbia hamar milioi eurotik beherakoa izan bada, eta betiere zergaldi horretan pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketa guztien diru zenbatekoa ez bada 100.000 eurotik gorakoa merkatuko balioan. Negozio-zifra garbia kalkulatzeko, hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 1.a) zerbakian ezarritako irizpideei jarraituko zaie. Dena dela, erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketa guztiak dokumentatu beharko dira, salbu eta Europar Batasuneko kide den estatu batean egoitza badute eta subjektu pasiboak frogatzen badu eragiketak egiteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla, eta entitate edo pertsona horiek enpresa edo lanbide jarduerak egiten badituzte.”

Hamahiru. 33.1 artikulua.

“1. Ondare elementu bat edo zerbitzu bat, zergaren ondorioetarako, merkatuko balio normalean baloratu denean, entitate eskualdatzaileak, eskualdaketa zein zergalditan egiten den, haren zerga-oinarrian sartuko du balio horren eta eskualdatutako elementuen kontabilitate balioaren arteko diferentzia.

26.1 artikulua e) eta f) letretan aipatzen diren kasuetan, eskuratutako elementuek merkatan duten balio normalaren eta entregatutako kontabilitatean duten balioaren arteko diferentzia sartuko da zerga-oinarrian, salbu eta eragiketa horrek akzio edo partaidetzen balio nominala aldatu besterik egiten ez badu, akziodunen partaidetzaaren portzentajea aldatu gabe eta ekarpenen itzulketa gertatu gabe.

Zerbaki honetan xedatutakoa ezarriko da 26. artikuluan bazkideendako ezarri erregela bereziak aplikatzeko aukera deusetan kaltetu gabe.

Aurrekoa galarazi gabe, kredituen konpentsazio bidez kapitala handitzen den kasuan, entitate eskualdatzaileak bere zerga-oinarrian sartuko du kapital handitzearen zenbatekoaren (dagokion proportzioan) eta kreditu kapitalizatuaren balio fiskalaren arteko diferentzia.”

Hamalau. 35. artikulua, 8., 9. eta 10. zerbakiak gehitzea.

“8. Entitateen kapitalean edo funts berekietan izaten den partaidetza bakoitzaren balore adierazgarriak eskualdatzean sortutako errenta negatiboak, baldin eta eskuratzaileraren sozietate talde bereko entitate bat bada Merkataritza Kodearen 42. artikuluko

irizpideen arabera, egoitza non den eta urteko kontu bateratuak aurkeztu beharra alde batera utzita, zergaldi honetan egotziko dira: balore horiek sozietateen taldekanpoko hirugarrenei eskualdatzen zaizkienean, edo entitate eskualdatzaileak edo eskuratzailerak taldeko kide izateari uzten dionean.

Zerbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko entitate eskualdatua iraungitzen denean.

9. Establezimendu iraunkor bat eskualdatzean sortutako errenta negatiboak, baldin eta eskuratzaileraren sozietate talde bereko entitate bat bada Merkataritza Kodearen 42. artikuluko irizpideen arabera, egoitza non den eta urteko kontu bateratuak aurkeztu beharra alde batera utzita, zergaldi honetan egotziko dira: establezimendu iraunkorra sozietateen taldekanpoko hirugarrenei eskualdatzen zaizkienean, edo entitate eskualdatzaileak edo eskuratzailerak taldeko kide izateari uzten dionean.

Zerbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko establezimendu iraunkorraren jardura uzten denean.

10. Kita eta itxaroteen kontabilitate erregistroari dagokion sarrera, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legea aplikatzearen ondorio baita, zordunaren zerga-oinarrian egotziko da, ondoren zor berak dakartzan gastu finantzarioak erregistratu behar diren heinean, eta betiere sarrera horren mugara bitarte.

Dena dela, aurreko lerroaldeak aipatzen duen sarreraren zenbatekoa zor beretik datozen eta erregistratu gabe dauden gastu finantzario guztien zenbatekoa baino handiagoa bada, hark zerga-oinarrian izan den egozpena egiten da zergaldi bakoitzean erregistratutako gastu finantzarioen proportzioan, zor beretik datozen eta erregistratu gabe dauden gastu finantzario guztiei dagokienez.”

Hamabost. 36.1 artikulua, bigarren lerroaldea.

“Bestetik, ez da zerga-oinarrian sartuko kostu bidezko eskualdaketa horietan lortutako errenten ehuneko 50a, haien zenbatekoa berriz inbertitzen bada, epe berdinetan, hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren baloreak erosteko.”

Hamasei. 40.1 artikulua.

“1. Zerga-oinarri positiboa murrizten ahal da, aurreko hamar urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio-oinarri negatiboekin. Aurretik, bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio-oinarri negatibo horiek.”

Hamazazpi. 41.1 artikulua, bigarren lerroaldea.

“Portzentaje hori ehuneko 60koa izanen da mikroenpresa izaera duten subjektu pasiboentzat, hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakian xedatutakoaren arabera”.

Hemezortzi. 50. artikulua.

“50. artikulua. Karga-tasak.

1. Karga-tasa orokorra ehuneko 20 izanen da.

2. Ondoko hauek ehuneko 17ko zerga ordainduko dute:

a) Irabazi asmorik gabeko entitate eta erakundeak, baldin eta legezko ordezkariak karguetan aritzen direnek kobratzen ez badute eta dagokien organoaren aurrean erantzun behar badute, entitate horiek ez badituzte betetzen Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako tributu araubideaz baliatzeko baldintzak.

b) Lanbide elkargoak, enpresaburuen elkarteak, ganbera ofizialak eta langileen sindikatuak.

c) Zerga arloan babestuak dauden sozietate kooperatiboak, kooperatibatik kanpoko emaitzei dagokienez izan ezik, horiei aurreko 1. zenbakian aipatutako tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

d) Lan Sozietateei buruzko martxoaren 24ko 4/1997 Legeak araututako lan sozietateak, baldin eta lortzen dituzten mozkinen ehuneko 25 sartzen badute gutxienez ere Erreserbako Funts Berezian, salbu sozietatearen jarduera berariazkoei atxikirik ez dauden ondare elementuetatik ateratzen diren errentei dagokienez, horiei artikuluko honen 1. zenbakian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Hala behar izanez gero, kontabilitatearen emaitza negatiboa denean eta likidazio-oinarria positiboa, ehuneko 17ko zerga tasa aplikatuko da.

3. ehuneko 10eko tasa ordainduko dute, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako zerga araubidea edukitzeko beharkizunak betetzen dituzten entitateek.

4. ehuneko 1eko tasa ordainduko dutenak hauek izanen dira:

a) Kapital aldakorreko inbertsio-sozietateak, Inbertsio kolektiboko instituzioei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen baititu, baldin eta eskatutako akziodunen kopurua, gutxienez ere, aipatutako legearen 9. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

b) Aipatutako legean ezarritako finantza izaerako inbertsio-funtsak, baldin eta eskatutako partaideen kopurua, gutxienez ere, aipatutako legearen 5. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

c) Lege horretan araututako ondasun higiezinak inbertsio-sozietateak eta ondasun higiezinak inbertsio-funtsak, hurrengo d) letran aipatzen direnak ez bezalakoak direnak, betiere eskatzen den akziodunen edo partaideen kopurua, gutxienez, lege horren 5. eta 9. artikuluetako laugarren idatz-zatietan aurreikusitakoa baldin bada, eta, inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak izanik, haien helburu eskusiboa edonolako hiri ondasun higiezinetan inbertitzea baldin bada, gero errentan emateko.

Zenbaki honetan aurreikusitako karga-tasa aplikatzeko beharrezkoa izanen da aurreko lerroaldean aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterentzea eskuratzen direnetik gutxienez hiru urte igaro arte, non eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, salbuespen gisa, berariazko baimena ematen ez duen.

Ondasun higiezin horiek c) letran ezarritako gutxienezko epea baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitateak, ondasuna eskualdatzen den zergaldiko kuotarekin batera, beste zenbateko bat ere ordaindu beharko du, hots, c) letran ezarritako araubidea aplikatu behar zen zergaldi bakoitzean higiezinari dagozkion errentei honako hau aplikatzearen ondoriozkoa: kasuan kasuko zergaldian indarra duen karga-tasa orokorraren eta ehuneko 1eko tasaren arteko diferentzia, deusetan galarazi gabe bidezko diren berandutza interesak, errekarquak eta zehapenak.

c) letra honetan ezarritakoa aplikatuko da, bakar-bakarrik, sozietatearen estatutuetan dibidenduak ez banatzea ezarrita badago.

d) Ondasun higiezinak inbertsio-sozietateak eta ondasun higiezinak inbertsio-funtsak (azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen direnak), c) letran aipatzen diren betebeharez gain, bakar-bakarrik errentan jartzeko etxebizitzak sustatzen badituzte eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Lehena. Ondasun higiezinak inbertsioek, ondasun higiezinak sustatzeko jarduerari lotuak badaude, ezin gaituzte ondasun higiezinak inbertsio sozietate edo funtsaren aktibo osoan ehuneko 20a.

Bigarrena. Ondasun higiezinak sustatu eta errentan jartzeko jardueran kontabilitate bereizia eginen da eskuratu edo sustaturiko ondasun higiezin bakoitzeko. Beharrezkoa den xehaketa eginen da, hura zatiturik dagoeneko etxebizitza, lokal edo erregistroko finka bakoitzari dagokion errenta ezagutzeko, c) letran aurreikusiriko portzentajeari dagokionez aktibo osoko inbertsioak kontatu beharra deusetan galarazi gabe.

Hirugarrena. Ondasun higiezinetakoinbertsio sozietate edo funtsek sustapenaren ondoriozko ondasun higiezinak errentan emanda edo eskainita eduki beharko dituzte zazpi urtez gutxienez. Epe hori eraikuntza bukatzen den egunetik aurrera kontatuko da. Ondorio horietarako, higiezinaren eraikuntzaren bukaera frogatuko da obrako azken ziurtagiriaren bidez, Eraikuntzaren Antolaketari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 6. artikuluan xedatu bezala.

Ondasun higiezin horiek d) edo c) letran ezarritako gutxienerako epea bukatu baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitateak, ondasuna eskualdatzen den zergaldiko kuotarekin batera, beste zenbateko bat ere ordaindu beharko du, hots, d) letran aurreikusitako araubidea aplikatu behar zen zergaldi bakoitzean higiezinari dagozkion errentei honako hau aplikatzearen ondoriozkoa: kasuan kasuko zergaldian indarra duen karga-tasa orokorraren eta ehuneko 1eko tasaren arteko diferentzia, deusetan galarazi gabe bidezko diren berandutza interesak, errekarquak eta zehapenak.

Ondasun higiezinetan inbertitzeko sozietate eta funtsek, etxebizitzak errentan emateko sustatuz gero, halaxe jakinarazi beharko diote zerga administrazioari, jarduera hori hasten den zergaldian.

e) Hipoteka merkatua arautzeko funtsa, Hipoteka Merkatua arautzeari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 25. artikuluan ezarria.

5. Ekainaren 8ko 8/1987 Legeak arautzen dituen pensio funtsek ehuneko 0ko tasa izanen dute.

Hemeretzi. 51. artikulua.

“51. artikulua. Kuota osoa, benetako kuota eta gutxienerako zerga-ordainketa.

1. Kuota osoa izanen da likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

2. Benetako kuota izanen da titulu honen II., III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako hobari eta kenkarien zenbatekoan kuota osoa murriztetik ateratzen den zenbatekoa.

3. Subjektu pasiboek 50. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ezarritako karga-tasak dituztenean, zerga-oinarriari aplikatu beharreko murrizketek (Inbertsioetarako Erreserba Bereziari eta aurreko zergaldietako likidazio-oinarri negatiboei dagozkienek), baita kuotaren gaineko kenkariak ere, ikerketa eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik kenkaria izan ezik (66. artikuluan arautua), ez dute ondorio izanen benetako kuota izatea zerga-oinarriaren gainean ehuneko 10a aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa baino txikiagoa, emaitza honen bitartez murriztu eta gero: 58. artikuluko hobariak eta titulu honen III. kapituluako barneko eta nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariak batu eta batuketa horretatik ateratzen dena 50. artikulua arabera aplikatu beharreko karga-tasaz biderkatuta ateratzen den emaitza.

Aurreko lerroaldean ezarritako portzentajea ehuneko 8a izanen da, baldin eta subjektu pasiboak zergaldian gutxienez ehuneko 5 handitzen badu plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteekin alderatuta.

Hogei. Indarrik gabe utzi da 57. artikulua.

Hogeita bat. 59. artikulua. 4.c) eta 5. zenbakiak aldatzea. 6. eta 7. zenbakiak gehitzea. Orain arteko 6. zenbakia 8. zenbakia izanen da.

“c) Dibidenduaren banaketak edo mozkinetako partaidetzak ez dakarrenean errenta zerga-oinarriari sartzea, sarreratzat jotzen ez delako.

Aurreko lerroaldean xedatzen dena ez da kasu hauetan aplikatuko:

a) Subjektu pasiboak frogatzen badu dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren pareko zenbatekoa sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarriari sartu dela, zerga 50.1. artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera ordainduz, partaidetzaren jabe izandako ondoko ondoko entitateek eskualdaketa dela-eta lortu duten errenta gisa, eta errenta horrek gainbalioen barneko ezarpen bikoitzaren ondoriozko kenkarirako eskubiderik ez duela izan.

Kasu horretan, partaidetzaren jabe izandako entitateek eskualdaketa egitean lortutako errentei baloreen eskualdaketa berrinbertitzeagatik kenkaria aplikatzen dietenean, dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren zenbatekoaren ehuneko 18 izanen da kenkaria.

Kenkaria partzialki aplikatuko da c) letra honetan aipatzen den frogak izaera partziala duenean.

b) Subjektu pasiboak frogatzen badu dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren pareko

zenbatekoa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarrian sartu dela, partaidetzaren jabe izandako ondoz ondoko pertsona fisikoek eskualdaketa dela-eta lortu duten errenta gisa. Kenkaria partzialki aplikatuko da c) letra honetan aipatzen den frogak izaera partziala duenean.

Kasu honetan, kenkariak ez du gainditzen ahalko honako hau: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zerga-oinarriko aurrezkiaren zati berezian sartuta dauden ondare handitzei dagokien karga-tasa dibidenduari edo mozkinetako partaidetzari aplikatuta ateratzen den zenbatekoa.”

“5. Subjektu pasiboaren zerga-oinarriko errenten artean, Espainiako lurraldean egoiliar izan eta karga-tasa orokorra duten entitateen kapitaleko edo funts berekietako balore adierazgarrien eskualdaketatik etorri direnak zenbatzen direnean, kuota osotik honako hau kenduko da: entitate partaidetuak eskualdatutako partaidetza eduki duen bitartean sortu diren eta kenkarirako eskubidea duten mozkin banatugabeen gehikuntza garbiari, kapitalari gaineratuak barne, bidezko karga-tasa aplikatzearen ondoriozko emaitza, betiere eskualdaketa ondoz ondoko errenta positiboaren mugarekin, baldin eta honako eskakizunak betetzen badira:

a) Eskualdaketa egin aurretik partaidetzaren portzentajea, zuzena edo zeharkakoa, ehuneko 5 edo handiagoa izatea.

b) Portzentaje hori etengabe eduki izana partaidetza eskualdatu den egunaren aurreko urtean.

Partaidetzaren eskurapenaren data dela-eta, partaidetzaren eskurapenaren datan mozkin banatugabeen zenbatekoa zehazterik ez badago, eskurapenaren balioa funts berekiei dagokiela ulertuko da.

Idatz-zati honetan ezarritako kenkaria ez zaio aplikatuko mozkin banatugabeen gehikuntza garbiaren zatiari, likidazio-oinarri negatiboekin egindako murrizketagatik entitate partaidetuaren zerga-oinarrian sartu gabeko errentei dagokienez.

6. Entitateak dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren parekoa den zenbatekoaren tributazioa frogatzen badu, artikuluko honen 4.c) zenbakiko a) eta b) azpilletretan aipatutako moduan, ez da entitatearen zerga-oinarrian sartuko aipatu dibidendua edo mozkinetako partaidetza. Dibidendu edo mozkinetako partaidetza horrek partaidetzaren balio fiskala murriztuko du. Halakoetan, subjektu pasiboak artikuluko honen 1. edo 2. zenba-

kian (dagokionean) aipatutako moduan aplikatuko du kenkaria.

7. Egoitza duen entitate bateko partaidetza eskualdatzetik datozen errenta negatiboaren zenbatekoa murriztuko da entitate partaidetutik jasotako dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren zenbatekoan (betiere 2009an hasitako zergalditik aurrera), baldin eta dibidendu edo mozkinetako partaidetza horiek ez badute murriztu haren eskuratze balioa, eta artikuluko honen 2. zenbakian ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea izan badute.”

Hogeita bi. 60. artikulua. 4. zenbakia aldatzea. 5. zenbakia gehitzea. Orain arteko 4. zenbakia 6. zenbakia izanen da.

“4. Establezimendu iraunkorrak badira eta entitatearen zerga-oinarrian sartu ez diren errenta negatiboak lortu badituzte aurreko zergaldietan, geroago lortzen diren errenta positiboak ez dira sartuko, haien zenbatekora bitarte.

5. Establezimendu iraunkor bat eskualdatzearen ondoriozko errenta negatiboaren kasuan, zenbatekoa murriztuko da hartatik datozen eta aurretik lortu diren errenta positibo garbien zenbatekoan.”

Hogeita hiru. 60 bis.2 artikulua.

“2. Establezimendu iraunkor bat eskualdatzearen ondoriozko errenta negatiboaren zenbatekoa murriztuko da hartatik datozen eta aurretik lortu diren errenta positibo garbien zenbatekoan, alegia, hartatik datozenak.”

Hogeita lau. 61. artikulua. 3. eta 5. zenbakiak aldatzea. 6. zenbakia gehitzea.

“3. Kenkari honek, nazioarteko ezarpen bikoitzerako ezarritakoarekin batera (hain zuzen ere, dibidenduengatik edo mozkinetako partaidetzengatik 60. artikuluko arabera aplikatzen ahal dena), ezin izanen du gainditu Espainian errenta horiengatik ordaindu beharko litzatekeena, espainiar lurraldean lortu izan balira.

Muga horren gaineko gehiegizkoa ez da gastu kengarrizat joko zergari begira.”

“5. Dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak ez dakarrenean errenta zerga-oinarrian sartzea, sarreratzat jotzen ez delako, bidezkoa izanen da kenkaria aplikatzea, baldin eta subjektu pasiboak frogatzen badu dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren pareko zenbateko batek Espainian tributatu duela partaidetzaren edozein eskualdaketa bitartez, artikuluko honetan ezarritako moduan. Artikulu honen 3. zenbakian aipatzen den muga kalkulatu da dibidendua edo mozkinetako

partaidetza zerga-oinarrian sartuta aterako litzatekeen kuota osoaren arabera.

Era berean, subjektu pasiboak frogatzen badu dibidenduaren edo mozkinetako partaidetzaren pareko zenbateko batek Espainian tributatu duela partaidetzaren edozein eskualdaketaren bitartez, artikulua honetan ezarritako moduan, ez da entitatearen zerga-oinarrian sartuko aipatu dibidendua edo mozkinetako partaidetza, haren banaketak kontabilitate galera ekarri duenean partaidetzaren balioa hondatzeagatik. Dibidendu edo mozkinetako partaidetza horrek partaidetzaren balio fiskala murriztuko du. Kasu honetan subjektu pasiboak kenkaria aplikatuko du artikulua honetan ezarritako moduan, kontuan harturik aurreko 3. zenbakian aipatutako muga honela kalkulatu dela: dibidendu edo mozkinetako partaidetza zerga-oinarrian sartuta aterako litzatekeen kuota osoa kontuan harturik.

6. Egoitza ez duen entitate bateko partaidetza eskualdatzetik datozen errenta negatiboen zenbatekoa murriztuko da entitate partaidetutik jasotako dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoan (betiere 2009an hasitako zergalditik aurrera), baldin eta dibidendu edo mozkinetako partaidetza horiek ez badute murriztu haren eskuratze balioa, eta artikulua honetan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea izan badute”

Hogeita bost. 62. artikulua. 4. zenbakia aldatzea. 5. zenbakia gehitzea.

“4. Egoitza ez duen entitate batean partaidetzaren eskualdaketan errenta negatiboa lortu bada, eta aldeaz aurretik beste entitate batek eskualdatu bazuen (betiere entitate horrek betetzen baditu sozietate talde bereko kide izateari buruz Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen inguruabarrak), aipatu errenta negatiboa murriztuko da aurreko eskualdaketan (salbuespena aplikatu zitzaion hartan) lortutako errenta positiboaren zenbatekoan.

5. Egoitza ez duen entitate bateko partaidetza eskualdatzetik datozen errenta negatiboen zenbatekoa murriztuko da entitate partaidetutik jasotako dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen zenbatekoan (betiere 2009an hasitako zergalditik aurrera), baldin eta dibidendu edo mozkinetako partaidetza horiek ez badute murriztu haren eskuratze balioa, eta artikulua honen 1. zenbakian ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea izan badute”

Hogeita sei. 63. artikulua.

“63. artikulua. Kenkariak ibilgetu materialeko eta higiezinako inbertsioetako elementu berrietan egindako inbertsioengatik.

1. Ibilgetu materialeko eta ondasun higiezinako inbertsioetako elementu berrietan inbertsioak eginez gero, baldin eta elementu horiek (lurrak bazter utzita) entitatearen ustiapen ekonomikoaren garapenari lotuta badaude, kuota likidoari inbertsio horien zenbatekoaren ehuneko 10 kentzen ahalko zaio.

Aurreko lerroaldean aurreikusitako kenkaria hartzen ahalko dute foru lege honen 17. artikuluan azaldutako finantza-errentamenduko kontratuen bidez eskuratutako ondasunek.

Kenkaria egiteko eskubidea zein unetan sortu den zehazteko nahiz kenkari horren oinarria kalkulatzeko, 36. artikuluko 1. idatz-zatiko a), b) eta c) letretan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Erosketa aukera gauzatzen ez bada, 65. artikuluan xedaturikoa aplikatzearen ondorioetarako, ez-betetze bat izanen da, kontratua iraungi edo hausteko egunean.

2. Artikulua honetan araututako kenkaria egiten ahalko da, soil-soilik, enpresa sortu berriek beren lehenbiziko hiru urteetan egiten dituzten inbertsioengatik.

Kenkari hau ez dute aplikatzen ahalko inguruabar hauetako edozeinetan dauden enpresa sortu berriek:

a) Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako kontrol loturaren antzekoa duten sozietate lotuen talde bateko kide izatea.

b) Enpresa, beste batekin edo batzuekin batera, pertsona fisiko edo juridiko batek edo batzuek kontrolatzea edozein bide erabiliz, batera aritzen badira edo zuzendaritza bakarraren mende badaude, estatutuetako akordio edo klausulen bitartez.

c) Enpresen oinordetza edo jarraipen kasuetan”

Hogeita zazpi. 65.2. artikulua.

“2. Kenkariaren aplikazioa bateraezina izanen da, ondasun eta zenbateko beretarako, Zerga honetan ezarritako beste edozein onura edo pizgarri fiskalekin, 66. artikuluan ezarritako kenkaria izan ezik”

Hogeita zortzi. 69. artikulua.

“69. artikulua. Kenkaria, biomasako instalazio termikoetan inbertsioak egiteagatik.

ehuneko 15eko kenkarirako eskubidea izanen dute, kuota likidoari dagokionez, erregai gisa biomasaren erabiltzen duten instalazio termikoetan egindako inbertsioek, baldin eta instalazio horiek enti-

tatearen ustiapen ekonomikoaren garapenari atxikiak badaude.

Horretarako, beharrezkoa izanen da energia arloko organo eskudunak txosten bat egitea, horren bidez egiaztatzeko egindako inbertsioen zenbatekoa eta instalazioak dagokien araudi sektorialean ezarritakoari jarraikiz jarri direla zerbitzuan.”

Hogeita bederatzi. Indarrik gabe utzi dira artikulua hauek: 66 bis, 68, 68 bis, 70, 70 bis, 70 ter eta 70 quater.

Hogeita hamar. 71.1, 2 eta 3 artikulua.

“1. Zergaldian zehar plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoan gehikuntzarik izan baldin bada, urtean batez bestekotik gora izan den pertsona bakoitzeko 5.000 euroko kenkaria aplikatuko da kuotan. Horretarako, kontuan hartuko da zergaldiaren aurre-aurreko hama-bi hilabeteen plantillan kontratu mota hori zutenen batez bestekoa. Ondorio horietarako, sortu berri diren entitateen kasuan, eratu aurreko aldiaren zero langile izan dituztela zenbatuko da.

Plantillan izan den batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, bakar-bakarrik zenbatuko da zenbat pertsona dauden urtean lan-kontratu mugagabearekin. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen araberrako proportzioan kontatuko dira.

Kenkariak, guztira, ez du gaindituko zergaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoan urtean gehitutako pertsona kopuruari legokiokeena, edozein izanik kontratazio modua.

2. Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa mantenduz, plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada eta gehikuntza hori entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza baino handiagoa bada, pertsona eta urte bakoitzeko 2.000 euroko kenkaria aplikatuko da bi gehikuntza horien arteko diferentziatik.

Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztuz, plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada, aurreko erroaldean aipatu kenkaria eginen da aipatu den gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez besteko murrizketaren arteko diferentzia positiboaren gainean.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan ezarritako kenkariak 6.800 eta 3.200 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, plantillan langile minusbaliatu kontratatuen batez bestekoa gehitzen duen urteko eta pertsona bakoitzeko, Minusbaliatuak

Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluaekin bat; modu bereizian kalkulatu da, aurreko zenbakietan ezarritako prozeduren bidez.”

Hogeita hamaika. 72. artikulua.

“72. artikulua. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariari buruzko arau komunak.

1. 63., 64., 65. eta 69. artikuluek aipatzen duten kenkaria aplikatzeko eskubidea noiz sortzen den zehazteko, 42.2 artikulua bigarren erroaldean xedatutakoa aplikatzen ahalko da, hala badagokio.

2. Kapitulu honek aipatzen dituen kenkariaren oinarria kalkulatzeko, 42.3 artikuluan xedatutakoa aplikatzen ahalko da, hala badagokio.

Inbertsioari edo jarduerari lotutako diru-laguntza bat ematen bada kenkaria aplikatzeko zergaldiaren ondoko zergaldi batean, subjektu pasiboak zergaldi horri dagokionez egin behar duen aitortzearen sartuko du kenkariaren oinarria murriztearen ondorioz soberan kendutako kuotaren zenbatekoa.

3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak ezin izanen dute osotara gainditu honako hau: barneko eta nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkarietan eta hobarietan kuota osoa murriztearen ondoriozko kuota likidoaren ehuneko 25a, salbu eta 66. artikuluan araututakoa, zeinak kuota likido osoa xurgatzen ahalko baitu.

Kuota aski ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak aplikatzen ahalko dira, muga bera errespetatuz, hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan. Ondorio horietarako, subjektu pasiboak egiaztatu beharko du, dagokion moduan, kontabilitatea eta behar diren dokumentuak erakutsiz, kenkariaren jatorria eta zenbatekoa, sortu direneko zergaldia edozein dela ere.

Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko epeen zenbaketa emaitza positiboak lortzen diren lehenengo zergaldira arte geroratzen ahalko da, kasu hauetan:

a) Entitate sortu berrietan.

b) Aurreko zergaldietako galerak baliabide berriak benetan jarri onbideratzen dituzten entitateetan, halakotzat hartzen ez delarik erreserben aplikazioa edo kapitalizazioa.

4. Inbertsio edo gastu batek ezin izanen du kenkaria entitate batean baino gehiagotan aplikatzeko biderik eman.

5. Kenkarietako baliatzeak, ibilgetuaren barnean kontabilizatu beharko dira egiten diren inbertsioak, gaineko ondare elementuetatik bereizita eta haien identifikaziorako bidea emanen duen epigrafe baten

pean. Halaberean, subjektu pasiboaren ondarean bost urtez gutxienez egon beharko dute edo haren balio-bizitzan, laburragoa balitz, gastu arrunt gisa hartzen diren kontzeptuen kasuan izan ezik.

6. Kenkarien aplikazioa ordena honen arabera egin beharko da:

Barneko eta nazioarteko ezarpen bikoi-tzagatiko hobariak eta kenkariak gauzatu ondotik, lehenbizi aurreko zergaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira, foru lege honetan ezarritako mugak errespetatuz.

Ondotik, aurreko 3. zenbakian ezarritako muga aplika dakiekeen zergaldiko kenkariak gauzatuko dira, baldin eta aurreko lerroaldeko kenkarien eta hauen artean osotara ehuneko 25eko muga gainditzen ez bada.

Horren ondoren, kuota likidoaren gainean mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak, foru lege honetan aurreikusitako, gauzatuko dira.

7. Kenkariak subjektu pasiboak bere borondatez eginiko aitopenetik ateratako kuotari aplikatuko zaizkio, bai eta Administrazioak gauzatutako tributu erregularizaziotik ateratzen den kuotari ere.”

Hogeita hamabi. Indarrrik gabe utzi da 87. artikulua.

Hogeita hamahiru. 109.2 eta 3 artikulua.

“2. Aldi baterako elkarteen antzeko lankidetzaren moduen arabera, atzerrian egin edo ematen diren obra, zerbitzu edo horniduretan parte hartzen duten entitateek atzeritik datozen errentei dagokien salbuespenari heltzen ahalko diote. Dena dela, salbuespen araubideari heldu ala ez, ez dira zergaren aldetik kengarriak izanen atzeritik datozen errenta negatiboak. Azken kasu horretan, ez dira zerga-oinarrian sartuko geroago lortutako errenta positiboak, errenta negatibo horien zenbaterokora bitarte.

Entitateek Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari eskatu beharko diote salbuespena, Espainiako lurraldean eratzten diren aldi baterako enpresa elkarreentzat eskatzen den informazioaren antzekoa aurkeztuz.

3. Salbuesteko harturiko erabakiak aldi baterako elkartea iraungi arte aplikatzera behartuko du.

Aldi baterako elkarteko partaidetza eskualdaztearen edo iraungitzearen ondoriozko errenta negatiboaren zenbatekoa murriztuko da aldi baterako elkartetik datozen eta aurretik lortu diren errenta positibo garbieraren zenbatekoan.”

Hogeita hamalau. 110.10 artikulua.

“10. Subjektu pasiboek kapital-arriskuko entitateen kapitalean edo funts berekietan egindako

diruzko ekarpenen ehuneko 20 kentzen ahalko dute kuota likidotik.

Ekarpen horiek erabat ordainduak egon beharko dute eta bost urtez iraun behar dute entitatearen aktiboan.

Kenkari hori aplikatuko da, betiere, 167.1.B).b) artikuluan ezartzen den baldintza betetzen bada eta, kapital-arriskuko entitateak eskaturik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak berariazko bai-mena ematen badu.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria foru lege honen VI. tituluko IV. kapituluaren azaltzen diren kenkariekin batera aplikatuko da, 72. artikuluan ezarritako muga berekin. Kenkari hau bateraezina izanen da 36.1 artikuluan ezarritako baloreen berrinbertsioarekin.”

Hogeita hamabost. 121. artikulua. 4. zenbakia gehitzea.

“4. Talde fiskaleko sozietate bateko (taldeko kide izateari uzten dion bateko) partaidetza eskualdatzearen ondoriozko errenta negatiboaren zenbatekoa murriztuko da, eskualdatutako entitateak talde fiskalaren barnean sortutako zerga-oinarri negatiboaren zenbatekoan, betiere haren barnean konpentsatu badira.”

Hogeita hamasei. Kendu egin da 123.3 artikulua.

Hogeita hamazazpi. 125. artikulua.

“125. artikulua. Berrinbertsioa.

1. Talde fiskaleko sozietateek 36. artikulua aitpatzen duen berrinbertsioagatiko salbuespenari heltzen ahalko diote. Aparteko onura lortu zuen sozietateak edo taldeko beste batek egin dezake berrinbertsioa. Berrinbertsioa taldeko beste sozietate bati elementu bat erosiz gauzatzen ahalko da, elementu hori berria izatearen baldintzarekin.

2. Onura fiskal hori ez da bidezkoa izanen talde fiskaleko entitateen artean egiten diren eskualdatzearen kasuan.”

Hogeita hemezortzi. 131.4 artikulua.

“4. 12.2 eta 125.1 artikuluetan ezarritako kasuetan, Inbertsioetarako Erreserba Bereziaren erabilera edo 36. artikuluan azaldutako berrinbertsioa talde fiskaleko beste entitate batek egiten badu, eta entitate hori taldetik ateratzen bada, hain zuzen ere 43.3 eta 36.2 artikuluetan, hurrenez hurren, inbertsioari eusteko ezarritako dauden gutxienerako epeak bukatu baino lehen, pizgarri horiek aplikatzeko betebeharrak hautsi direla ulertuko da, salbu eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak

horretarako berariazko baimena eman baldin badu, hori justifikatzen duten egoera berezietan”

Hogeita hemeretzi. 135.1 artikulua.

“1. Aurreko artikuluan ezarritako araubidea aplikatzekoa izan duten eragiketen ondoriozko eskualdaketen bidez eskuratutako ondasunak eta eskubideak, zergari dagokionez, baloratuko dira eragiketa egin aurretik entitate eskualdatzailean zituzten balio berberen arabera. Balio horiek zuzenduko dira eragiketa dela-eta zerga benetan ordaindu duten errenten zenbatekoan”

Berrogei. 137.4 artikulua.

“4. Bazkideak Espainiako lurraldeko egoiliar izateari uzten badio, hori gertatzen den zergaldian, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako edo zerga honetako zerga-oinarrian sartuko da honako hau: akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balio normalaren eta aurreko zenbakian aipatu den balioaren arteko diferentzia.

Errenta horri dagokion zerga-zorren zatiaren ordainketa atzeratzen ahalko da, baloreak eskualdatzen diren zergaldiari dagokion aitortpenarekin batera sartuz, subjektu pasiboak horren ordainketa bermatzen baldin badu.”

Berrogeita bat. 138.3 artikulua.

“3. Bazkideak Espainiako lurraldeko egoiliar izateari uzten badio, hori gertatzen den zergaldian, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako edo zerga honetako zerga-oinarrian sartuko da honako hau: akzioek edo partaidetzek merkatuan duten balio normalaren eta aurreko zenbakian aipatu den balioaren arteko diferentzia.

Errenta horri dagokion zerga-zorren zatiaren ordainketa atzeratzen ahalko da, baloreak eskualdatzen diren zergaldiari dagokion aitortpenarekin batera sartuz, subjektu pasiboak horren ordainketa bermatzen baldin badu.”

Berrogeita bi. 139.3 artikulua, bigarren leerroaldea.

“Hala ere, entitate eskuratzailerak entitate eskualdatzailearen kapitalean gutxienez ehuneko 5eko partaidetza duenean, partaidetzaren eskurapen prezioaren eta horrek funts berekietan duen zatiaren arteko diferentzia eskuratutako ondasun eta eskubideei egotziko zaie, Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta gainerako garapen arauetan azaltzen den integrazio orokorreko metodoa ezarritik; eta egozten ez den diferentziaren zatia zerga-oinarritik kentzen ahalko da, kendu ere zenbatekoaren ehuneko 3 gehienez urtean, ondorengo betebeharrak betez gero.”

Berrogeita hiru. 139.4 artikulua, azkeneko leerroalde bat gehitzea.

“Zergaren aldetik kengarria den diferentziaren zenbatekoa (zenbaki honetan eta aurreko 3an aipatua) murriztuko da entitate eskualdatzailean konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboaren zenbatekoan, betiere entitate eskuratzailerak konpentsa baditzake, partaidetzaren proportzioan, baldin eta entitate eskuratzailerak eskualdatzailean partaidetza duen denboran sortu badira”

Berrogeita lau. 140.3 artikulua.

“3. Entitate eskualdatzailean konpentsatzeko dauden likidazio-oinarri negatiboek entitate eskuratzaileraren likidazio-oinarri positiboak murrizten ahalko dituzte, foru lege honetan ezarritako moduan.

Entitate eskuratzailerak entitate eskualdatzailearen kapitalean partaidetza duenean, edo biak Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen duen sozietate talde batekoak direnean, konpentsagarria den likidazio-oinarri negatiboa zenbateko honetan murriztuko da: bazkideek edozein tituluz egiten dituzten ekarpenen balioaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentzia positiboaren zenbatekoan. Aipatu ekarpenak partaidetza horri dagozkio, edo taldeko entitateek entitate eskualdatzailean dituzten partaidetzei”

Berrogeita bost. 142. artikulua.

“142. artikulua. Establezimendu iraunkorren galerak.

Establezimendu iraunkor bat eskualdatzean errenta positiboa sortzen denean, eta foru lege honen 134.1.d) artikuluan ezarritako araubidea aplikatzekoa denean, haren zenbatekoak establezimendu iraunkorrek lortutako errenta negatibo garbiak gainditzen baditu, zenbateko hori entitate eskualdatzaileen zerga-oinarrian sartuko da, deusetan galarazi gabe kuota osotik kendu ahal izatea, 2009/133/EE Zuzentarauko xedapenengatik ez balitz, zerga-oinarrian sartutako errenta horixe kargatuko zukeen zerga, hain zuzen ere establezimendu iraunkorra dagoeneko estatu kidean, muga honekin: zerga-oinarrian sartutako errenta horri dagokion kuota osoaren zenbatekoa”

Berrogeita sei. 145.1 artikulua.

“1. 136., 137.2, eta 144. artikuluetan ezarritako balorazio erregelak aplikatzeagatik sor litekeen ezarpen bikoitza eragozteko asmoz, ondorengo arauak aplikatuko dira:

a) Ekarrirako ondasunei egozten ahal zaizkien errenten kargura banatutako mozkinen eskubidea emanen dute dibidenduen barneko ezarpen biko-

tza saihesteko kenkarirako (59.2 artikuluan aipatua), edozein dela ere bazkidearen partaidetzaren portzentajea eta antzinasuna. Irizpide bera aplikatuko da gainbalioen barneko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariari dagokionez (59.5 artikulua), partaidetza eskualdatzean sortzen diren errentak direla eta.

b) Ekarrirako ondasunei egozten ahal zaizkien errenten kargura banatzen diren mozkinen eskubidea emanen dute salbuespenerako edo dibidendu nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkarirako, edozein dela ere bazkidearen partaidetzaren maila”

Berrogeita zazpi. 167.3 eta 4 artikulua.

“3. Aurreko 1. zenbakian adierazitako ezaugarriak betetzen dituzten akzioen eta partaidetzen eskualdaketa ondoz lortzen diren errentei 110.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialaren edo ondasun higiezinak inbertsioen ondare elementu lotuak kostu bidez eskualdatuta lortzen diren errentak, baldin eta aipatutako eskualdaketa zenbatekoa berrinbertitzen bada, 36.1 artikuluan lehenengo leerroaldean ezarritako epeetan, hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian azaltzen diren baloreak harpidetu edo eskuratzeko.

4. Subjektu pasiboek enpresak sustatzeko sozietateen funts berekietan egindako diruzko ekarpenen ehuneko 20 kentzen ahalko dute kuota likidoan.

Ekarpen horrek erabat ordaindua egon behar du eta bost urtez iraun behar du sozietatearen aktiboan.

Idatz-zati honetan agertzen den kenkaria foru lege honen VI. tituluko IV. kapituluan araututako kenkariekin batera aplikatuko da, 72. artikuluan ezarritako muga berekin. Kenkari hau bateraezina izanen da 36.1 artikuluan ezarritako baloreen berrinbertsioarekin”

Berrogeita zortzi. Hemezortzigarren xedapen gehigarria, 1.b) zenbakia.

“b) Enpresa txikia izatea, hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz”

Berrogeita bederatzia. Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. Zenbait berrinbertsio zein baloretan gauzatzen ahal diren.

Foru lege honetan araututako zenbait berrinbertsio gauzatzen ahal direneko baloreek baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Edonolako entitateen kapitaleko edo funts berekietako partaidetzaren balore adierazgarriak izatea, gutxienez ere ehuneko 5eko partaidetza emanen dutenak haien kapital sozialean.

Berrinbertsioaren xede diren baloreak jarduera ekonomikoei lotu gabeko ondare elementuak dituzten entitateei badagozkie, eta, itxitako azken ekitaldiko balantzearen arabera, aktiboaren ehuneko 15 baino gehiago badira elementu horiek, berrinbertsioa ez da egintzat hartuko portzentaje hori baloreen eskurapen-prezioari aplikatzearen ondorioz ateratzen den zenbatekoan. Portzentaje hori balantze bateratuaren gainean kalkulatu da, baldin eta balore eskualdatuak talde bateko entitate nagusiaren kapitalaren partaidetza bati badagozkie, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarri diren irizpideen arabera taldearen barruan entitate taldeaniztunak eta elkartuak sartzen direla, merkataritzako legeetan agindutako baldintzen arabera, egoitza nahiz urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra gorabehera. Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboak portzentaje hori zehazten ahalko du, balantzea osatzen duten elementuen merkatu balioen arabera.

Lotu gabeko elementutzat hartuko dira hurrengo 2. zenbakiko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren entitateetan zuzenean edo zeharka dauden partaidetzak eta haien aktiboa eratzen duten ondare elementuak, baldin eta aurreko leerroaldean aipatu den taldeko parte badira. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 33.1.b).1.) artikuluko 1. eta 2. zenbakietan ezarri diren baldintzak betetzen dituztenak izanen dira lotutako elementuak.

2. Aurreko 1. zenbakian ez dira ondorengo balore hauek sartzen:

a) Kapital sozialean edo funts berekietan partaidetza ematen ez dutenak.

b) Espainian egoitzarik ez duten entitateen kapital sozialeko edo funts berekietako partaidetzaren adierazgarri direnak, horien errentek ezin badezakete 62. artikuluan ezarritako salbuespena jaso.

c) Finantza izaerako inbertsio kolektiboko entitateetako partaidetzaren adierazgarri direnak.

d) Jarduera nagusitzat ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa duten entitateetan partaidetza izatearen adierazgarri direnak, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko

13/1992 Foru Legearen 33.1.b) artikuluan aurreikusi bezala.

3. Berrinbertsioa ez da egintzat joko eskuraztea talde bereko beste entitate bati egiten zaionean, 28.2 artikuluan azaltzen denaren arabera.”

Berrogeita hamar. Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. Enpresa txikiaren eta mikroenpresaren kontzeptua.

1. Enpresa txikitat hartuko da ustiapen ekonomiko bat gauzatzen duena eta honako baldintza hauek betetzen dituena:

a) Aurre-aurreko zergaldian izandako negozio zifren zenbateko garbia hamar milioi eurotik beherakoa izatea.

Enpresa sortu berria bada, negozio zifra hori kalkulatzeko, jarduera benetan gauzatu den lehenbiziko zergaldia hartuko da aintzat. Aurre-aurreko zergaldia urtebete baino gutxiagokoa izan bada edo jarduera hori urtebete baino gutxiagoan gauzatu bada, negozio zifren zenbateko garbia urtea osatu arte luzatuko da.

Delako enpresa sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), negozio zifren zenbateko garbia talde horretako kide diren sozietateen multzoa aintzat hartuta kalkulatu da. Irizpide hori bera aplikatuko da pertsona fisiko bat, bera bakarrik edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz aldamenekoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean badago, bazkide direneko beste entitate batzuekiko.

Enpresak jarduera-adar nahiz enpresa-ondare osoa eskuratu badu, entitate eskuraztailearen negozio zifren zenbatekoa zehazteko, entitate eskualdatzailearen zenbateko hori bera gehituko zaio, edo zergaldi horretan jarduera-adarrari zegokiona.

b) Aurreko a) letran adierazitako baldintza betetzen ez duten entitateek ez izatea enpresaren ehuneko 25etik gorako partaidetza, ez zuzenean ez zeharka, salbu eta kapital-arriskuko funtsak edo sozietateak badira edo enpresak sustatzeko sozietateak, eta entitate horien xede soziala betetzearen ondorioa bada partaidetza.

Ez dira inolaz ere enpresa txikitat joko Espainia eta Europako interes ekonomikoko elkarteen

eta aldi baterako enpresa elkarteen araubide berezipeko entitateak.

2. Mikroenpresatzat joko dira, enpresa txiki izanik, aurre-aurreko zergaldian izandako negozio zifren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo txikiagoa izan dutenak. Aurreko a) letraren hirugarren leerroaldean agertzen diren kasuetan, milioi bat euroko zifra hori taldeko entitateen multzoari aplikatuko zaio. Aurreko b) letran aipatutako kasuan, onartuko da entitatearen partaidetzaren ehuneko 25 baino gehiago egotea, zuzenean edo zeharka, aurre-aurreko zergaldiko negozio zifren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo txikiagoa izan duten entitateen esku”

Berrogeita hamaika. Berrogeita zortzigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Berrogeita zortzigarren xedapen iragankorra. 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldiei dagozkien likidazio-oinarri negatiboak.

2015eko urtarrilaren 1ean hasten den zergaldiaren aurrekoan konpentsatzeko dauden likidazio-oinarri negatiboek murrizten ahalko dituzte xedapen iragankor honek indarra hartu eta hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga-oinarri positiboak.

Hala ere, ez dira konpentsatzen ahalko 2015eko urtarrilaren 1ean hasten den zergaldiaren aurrekoan konpentsatzeko dauden likidazio-oinarri negatiboak, baldin eta, aurreko leerroaldean aipatzen den hamar urteko epea bukatu baino lehen, 15 urte baino gehiago pasatu badira sortu ziren egunetik”

Berrogeita hamabi. Berrogeita bederatzigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Berrogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. Araubide iragankorra ezartzea aplikatzeko dauden kenkarietat, 2015eko urtarrilaren 1aren aurretik hasitako zergaldiei dagokienez.

Foru lege honen VI. tituluko IV. kapituluan ezarritako kenkariak, 2014ko abenduaren 31n indarra duen testuaren arabera, aplikatzeko baldin badaude 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiaren hasieran, 72. artikuluan ezarritako baldintzekin eta mugekin aplikatzen ahalko dira, azken data horretatik aurrera indarra duen testuaren arabera”

Berrogeita hamahiru. Berrogeita hamargarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Berrogeita hamargarren xedapen iragankorra. Araubide iragankorra ezartzea, entitateen kapitalean edo funts berekietan dagoen partaidetzaren balore adierazgarriak hondatzearen ondoriozko

galarentzat, bai eta atzerrian establezimendu iraunkor baten bitartez lortzen diren errenta negatiboentzat ere, betiere 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan sortuak badira.

1. Entitateen kapitalean edo funts berekietan dagoen partaidetzaren balore adierazgarriak hondatzearen ondoriozko galeren itzultzea (baldin eta kengarriak izan badira sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian, 20.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, 2015eko urtarrilaren 1aren aurretik hasitako zergaldietan, alde batera utzita haren kontabilitate-egozpena egitea irabazien eta galeren kontuan), sartuko da funts berekien baloreak, zergaldia ixtean, hasierakoa gainditzen duen ekitaldiko zerga-oinarrian, partaidetzaren proportzioan, kontuan harturik hartan egindako ekarpenak edo ekarpenen itzultzeak, soberakin horren mugarekin. Ondorio horietarako, ulertuko da zergaldia ixtean eta hastean funts berekien balioaren arteko diferentzia positiboa, lerroalde honetan ezarritako moduan, bat datorrela, lehenik, zergaren aldetik kengarriak izan diren hondatzearen ondoriozko galerekin.

Era berean, zerga-oinarrian sartuko dira hondatzearen ondoriozko galera horiek, entitate partaidetuetatik jasotako mozkinetako partaidetzen edo dibidenduen zenbatekoarekin, banaketa hori kontabilitateko sarrera ez denean izan ezik.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko partaidetzaren balorea hondatzearen ondoriozko galerei dagokienez, dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen banaketak zehazten dituenen, eta barneko ezarpen bikoitzagatikoen kenkaria aplikatzea ekarri ez badute edo aipatu galerak ez badira zergaren aldetik kengarriak izan nazioarteko ezarpen bikoitzagatikoen kenkariaren esparruan.

2. Merkatu arautu batean kotizatzen duten entitateen funts berekietako edo kapitaleko partaidetzaren balore adierazgarrien itzultzea, 20.1 artikulua aplikatu ez bazaie, 2015eko urtarrilaren 1aren aurretik hasitako zergaldietan, kontabilitate esparruan balorea berreskuratzen den zergaldiko sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian sartuko dira.

3. Establezimendu iraunkor batek errenta negatibo garbiak lortu baditu eta horiek entitatearen zerga-oinarrian sartu badira 2015eko urtarrilaren 1aren aurretik hasitako zergaldietan, 60.bis artikuluan ezarritako salbuespena edo 60. artikuluko kenkaria aplikatuko zaie, soil-soilik, errenta negati-

bo horien zenbatekoa gainditzen duten unetik aurrera lortzen diren errenta positiboak.

4. Establezimendu iraunkor bat eskualdatzen bada eta 134.1.d artikuluan ezarritako araubidea aplikatzekoa bada, egoitza Espainiako lurraldean duen entitate eskualdatzailearen zerga-oinarria handitu egingen da zenbateko honen arabera: establezimendu iraunkorrek 2015eko urtarrilaren aurretik hasitako zergaldietan egotzitako errenta positiboan gainean errenta negatiboak duten soberakinaren zenbatekoa, betiere eskualdatzearen ondoriozko errenta positiboaren mugarekin.

5. Aldi baterako enpresa elkarte baten kasuan, salbuespen araubideari heldurik, errenta negatibo garbiak lortu baditu atzerrian eta horiek entitate kideen zerga-oinarrian sartu badira 2015eko urtarrilaren 1aren aurretik hasitako zergaldietan, baldin eta hurrengo zergaldietan aldi baterako elkarteak errenta positiboak lortzen baditu, enpresa kideek beren zerga-oinarrian sartuko dute, izaera positiboz, alde aurretik egotzitako errenta negatiboa, errenta positibo horien zenbatekoaren mugarekin.

6. X. tituluko IX. kapituluan ezarritako zerga araubide bereziari lotuta dauden berregituratze eragiketaren kasuan:

a) Bazkideak espainiar lurraldean egoitza izateari uzten badio, 137.4 eta 138.3 artikuluek aipatzen duten diferentzia zuzenduko da, hala behar bada, balorea hondatzearen ondoriozko galeren zenbatekoan, betiere galera horiek zergaren aldetik kengarriak izan badira 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan.

b) Foru lege honen 140.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira inolaz ere konpentsagarriak izanen entitate eskualdatzaileak jasan dako galerei dagozkien zerga-oinarri negatiboak, baldin eta ekarri badute entitate eskuratzaileak eskualdatzailearen kapitalean duen partaidetzaren balio-galera, edo beste entitate batek azken horretan duen partaidetzaren balio-galera, betiere denak Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen duen sozietate talde batekoak badira, eta aipaturiko balio-galeretako edozein 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan gertatu bada:"

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa.

PROPOSAMENAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen legegintzako herri-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren ordezkaria Ramón Morcillo Navaz jauna baita. Mahaiak tramitera onartu zuen, 2014ko maiatzaren 12an harturiko erabaki baten bidez.

Nafarroako Hauteskunde Batzorde Probintzialeko idazkariak Parlamentu honi igorri dio Estatistika Institutu Nazionalako Hauteskunde Erroldako Bulegoaren Zuzendariorde Nagusiak egindako ziurtagiria, non egiaztatzen baita aipaturiko legegintza-ekimena izenpetu dutenen sinadura baliodunen kopuruak gainditzen duela aurkeztu zen egunean autonomia erkidegoan indarrean zen erroldako hautesleen % 1, aipaturiko 3/1985 Foru Legeko 1. eta 3. artikuluek behartzen duten moduan. Hori guztia kontuan izanik, bidezkoa da aipatu Foru Lege proposamenaren tramitazioa jarraitzea 3/1985 Foru Legearen 3. eta 13. artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126.1d), 148. eta 149. artikuluetan aurreikusitako eran. Horretarako, legegintzako ekimenaren batzorde sustatzaileak Fermín Les Lacosta jauna izendatu zuen, proposamena Legebiltzarreko Osoko Bilkuran defenda dezan, hura aintzat hartzeko eztabaidan.

Hori horrela, aplikatzekoa den araudiarekin bat, ERABAKI DA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Foru lege proposamen honen xedea da Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak edo kanabis-erabiltzaileen klubak egungo legedian txertatzea eta, hartara, segurtasun juridikoa ematea kolektibo horiek osatzen dituzten pertsonen eta gizarteari oro har, modu horretan osasun publikoaren babesa hobetuko baita.

Nafarroan cannabis sativa da gaur egun gehien kontsumitutako substantzietako bat, bai bere izaera ludikoan, bai gaitz jakin batzuetarako dauzkan eragin aringarriengatik.

Cannabis sativa Nazio Batuen Estupefazianteen buruzko Konbentzio Bakarraren I. zerrendan sartuta dago, nazioarteko fiskalizazioaren menpe, eta osasunari kalte larriarik egiten ez dion substantzia-tzat hartuta dago.

Substantzia hori edukitzeak zigor- eta administrazio-ondorioak ditu gaur egungo legedian, eta osasun kolektiboa da babestutako ondasun juridikoa.

Halatan, Zigor Kodearen 368. artikulua araberako droga toxiko, estupefaziante edo gai psicotropikoak landatu, prestatu edo trafikagai hartzen dituztenek, edo beste modu batera horien kontsumo ilegala sustatu, faboratu edo errazten dutenek, edo aurreko helburuak lortzeko eurok eduki-

tzen dituztenek droga-trafikoko delitua egiten dute, arrisku abstraktuko delitu moduan.

Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko 1/1992 Lege Organikoaren 25. artikulua xedatzen duenez, administrazio-zuzenbidearen arloan arau-hauste larria da, non eta ez dagoen arau-hauste penalik, droga toxikoak, estupefazianteak nahiz substantzia psikotropikoak leku, bide, establezimendu edo garraio publikoetan kontsumitzea edo modu ez-zilegian edukitzea –nahiz eta trafikatzeko asmorik izan ez–, bai eta aipatutako leketan horiek kontsumitzeko erabilitako gailuak edo tresnak abandonatzea ere.

Jurisprudentziaren arabera –aipatutako arauak nahiz errealtate soziala aintzat hartuta–, substantzia horien kontsumoa ez da sartzen 368. artikuluan jasotako tipo penalean, baldin eta modu pertsonalean eta osasun kolektiborako arriskurik gabe egiten bada. Halaber, ez da administrazio arau-haustea izanen baldin eta kontsumo edo edukitze hori ez bada leku publikoetan egiten.

Hortaz, kanabisaren kontsumoa ez da arau-hauste penal edo administratiboa izanen, baldin eta arauak ezarritako eta jurisprudentziak interpretatutako mugak betetzen baditu. Muga horien artean onartzen dira bai kontsumo konpartitua, bai norberaren kontsumorako hornikuntza.

Lege-araubide horretan, kanabis-kontsumitzaileek segurtasun juridikoa emanen dien esparru bat bilatu ohi dute; bai kontsumoari dagokionez, bai beren autohornikuntzari dagokionez. Arlo horretako elkarteen hausnarketaren ondorioz eta landare horren laborantza eta kontsumoa arautzeari dagokionez nazioartean ireki den aukeraren ondorioz, kanabis-kontsumitzaileen klubak deituriakoak sortu dira.

Klub horiek, zeinak irabazi asmorik gabeko elkarte gisa eta, hortaz, elkartzeko eskubidearen babesean eratu baitira, gure erkidegoan ere ugaltzen ari dira, eta araudi bat behar dute, elkarte diren aldetik segurtasun juridikoa emanen diena eta, aldi berean, beren kideentzako nahiz oro har gizartearentzako segurtasun osoz jardutea ahalbidetuko diena.

Hortaz, foru lege honek klub horien eraketa arautuko du, cannabis sativaren erabiltzaileen kolektibo pribatu gisa eta legeak eta jurisprudentziak ezarritako mugak errespetatuz betiere.

Irabazi asmorik gabeko elkarte diren aldetik, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoa aplikatuko zaie, bai eta horri buruzko foru araudia ere.

Kluben asmoek eta helburuek nahiz barne-antolamenduak errespetatu egin beharko dituzte beti jurisprudentziak ezarritako mugak, eta bermatu egin beharko dute klubeko kideak benetakoak eta zehatzak direla, horiek guztiak jada kontsumitzaileak zirela klubean sartu aurretik, substantziaren kontsumoa toki itxi batean eta taldean egiten dela, substantzia-kantitatea txikia dela eta ez duela gairatzen kontsumo pertsonala, eta nolana ere ekidinen da substantziak klubari arrotz zaizkion hirugarrenengana ailegatu ahal izatea.

Kluben jarduera garatzeko egoitzek udal ordenantzak errespetatu beharko dituzte, eta jarduera lizentzia lortu beharko dute, bete egiten dituzte indarrean den araudia nahiz, kasua bada, Tabakismoaren kontrako osasun-neurriak eta tabako produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzeko 28/2005 Legean xedatutakoa –zeina abenduaren 30eko 42/2010 Legearen bidez aldatu baitzen–; bereziki, erretzaileen klub pribatuentzat xedatutakoa.

Azkenik, interes orokorrekoa da administrazio publikoek –autonomia erkidegoetakoek nahiz toki-koek– informazioa trukatzeko eta koordinatzeko guneak sustatzea klubekin edo horiek ordezkatzeko dituzten elkarteekin, kontrol eraginkor bat mantentze aldera kontsumitzen diren substantzien gainean, klubak jardueraren gainean eta, oro har, osasun publikoaren onerako diren gai guztien eta kanabis-kontsumitzaileek legez kanpoko merkatuetara jotzea murriztea dakarten gai guztien gainean.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru lege honen xedea da kanabis-kontsumitzaileen klubak eraketari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arau orokorrak ezartzea.

2. artikulua. Foru lege honen aplikazio-eremua Foru Komunitatea izanen da, eta toki entitateen eskumenak errespetatuko ditu, kanabis-kontsumitzaileen klubak ezarpenari eta jarduerari aplikatzekoa den orotan.

3. artikulua. Foru lege honek Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoan du babesa, kanabis-kontsumitzaileen klubak irabazi asmorik gabeko elkarte gisa hartzeari dagokionez.

4. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubak Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz jardunen dute.

5. artikulua. Administrazioarekiko harremana.

Kanabis-kontsumitzaileen klubek administrazio publikoekiko harreman arina izanen dute, osasun-kontrolako neurriak ezartzen lagunduko dute eta kontsumo arduratsua bultzatuko dute beren kideen artean. Horretarako, beharrezkoak diren organo edo entitateak sortuko dira, teknikariek, administrazioen ordezkariak eta klubetako kideek edo haien ordezkariak parte hartuta.

II. KAPITULUA**Kanabis-kontsumitzaileen klubek eraketa**

6. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubek irabazi asmorik gabeko elkarten forma juridikoa izanen dute, eta Elkarteko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatuaren arabera eratuko dira. Nafarroako Gobernuaren Elkarteen Erregistroan eman behar dute izena, eta behar den dokumentazioa aurkeztu.

7. artikulua. Bazkide fundatzaileek ohiko kanabis-kontsumitzaile izan beharko dute klubak jarduten hasi aurretik.

8. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubek helburuen artean honako hauek egon beharko dute, gutxienez ere:

- beren kideei kanabisaren kontsumoaren arriskuen prebentziorako prestakuntza ematea, bai eta bere kontsumoaren kalteak gutxitzearen arlokoa ere;
- beren kideek eginiko kontsumoaren nahiz substantziaren kontrola;
- erabiltzaileei norberaren kontsumoari buruz informatzea eta hori erraztea.
- kanabis-salmentaren merkatu ilegala urritzeko lan egitea.

9. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubek egoitzarako lokalek kokalekuari, egiturari eta osasungarritasun- nahiz higiene-arauei dagokienez udal ordenantzetan xedatutakoa bete beharko dute, bai eta Tabakismoaren kontrako osasun-neurriak ezartzeko eta tabako produktuen salmenta, hornidura eta publizitatea arautzeko 28/2005 Legean xedatutakoa ere, kasua bada.

Fisikoki zeharo bereizita egonen dira jendeari arreta emateko edo bazkide ez diren pertsonak sar daitezkeen gunek eta kontsumorako gunek.

Toki entitateek, beren eskumenak baliatuta, egoki jotzen dituzten baldintzak ezarri ahalko dituzte, kanabis-kontsumitzaileen klubek jardunera bideratutako lokalak irekitzei buruzkoak.

III. KAPITULUA**Antolakuntza eta funtzionamendua**

10. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubek 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoaren, beren estatutuen eta beren barne araudiaren arabera barne antolamendua izanen dute.

11. artikulua. Beren jardunean, kanabis-kontsumitzaileen klubek beren kideek bete egin beharko dituzte kanabisa kontsumitu ahal izateko ezarritako osasun- nahiz segurtasun-baldintzak.

12. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubek beren kideei zuzendutako jarduerak egin beharko dituzte, abusuzko kontsumoa ekidite aldera eta kanabisaren kontsumo arduratsua errazte aldera.

13. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubek beren kideei soilik utziko diete sartzan edozein kontsumo-jarduera egiten den lokaletan.

14. artikulua. Klubak bere kideen erregistro bat egin beharko du, kasuko datu pertsonalak jasota, halako moduan non edozein unetan zehazten ahalko baita nork osatzen duen elkartea, datuen babesari buruzko araudia uneoro errespetatuta.

15. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubek bazkide izan ahalko dira klubean sartzeko eskubidea egin aurretik kanabis-kontsumitzaile direla frogatzen duten adindunak.

16. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubek ohorezko bazkideak izendatzen ahalko dituzte, kanabisa aztertu, ikertu eta garatzean egindako ekarpenarengatik elkartearen kalifikazio hori jasotzen duten pertsonen artean. Izendapen hori Bartzar Nagusiak onetsi beharko du, zuzendaritza batzordeak proposatuta.

17. artikulua. Eskubide osoko bazkideek eta ohorezko bazkideek ez ezik, "bazkide ekintzaile" deiturikoek ere osatzen ahalko dituzte kanabis-kontsumitzaileen klubak; alegia, beren izaera dela eta beren eskumen-esparruetan kanabisa normalizatzeko lana egiten dutenek.

18. artikulua. Kluba osatzen duten pertsona guztiek bete beharko dute legeetan nahiz funtzionamenduari buruzko barne-arauetan xedatutakoa.

19. artikulua. Kluba osatzen duten pertsona guztiek –eskubide osoko bazkideek, ohorezko bazkideek nahiz bazkide ekintzaileek– prestakuntza jaso beharko dute, kanabisaren kontsumoari lotutako balizko arriskuen eta kalteen prebentzioaren arlokoa.

20. artikulua. Kanabis-kontsumitzaileen klubak saiatuko dira eskubide osoko beren kideek substantzia ahalik eta organikoena eta aizunik gabea kontsumi dezaten; hortaz, ezartzen diren osasun-kontrolak igaro beharko ditu substantziak.

21. artikulua. Kluba osatzen duten pertsonak behar bezala informatuta egoteko eskubidea dute, kanabisari, haren propietateei, haren eraginei eta hura kontsumitzetik etor litezkeen balizko arriskuei edo kalteei buruz, bai eta zigarreten ordezkari administrazio-moduei buruz ere.

22. artikulua. Elkarteko pertsonen betebeharra da kanabisaren kontsumo arduratsua egitea, bai eta klubekoak ez diren pertsonen kanabisaren kontsumoaren gaineko propaganda, publizitatea edo sustapenik ez egitea ere.

Elkarteko kide bakoitzak sinatutako zinpeko deklarazio baten bidez ezarriko da klubean erositako substantzien erabilera arduragabea edo legez kanpoko ez egiteko konpromisoa.

Estatutuek edo barne araudiko bestelako arauak elkartetik botatzeko arrazoi gisa jasoko dute betebeharrak horietako edozein ez betetzea; halatan, zuzendaritza batzordeak behar den sala-

keta jarriko du kasuan kasuko entitateetan, eta horrek ez dio elkarte horri inolako kalterik egingen.

23. artikulua. Elkarteko kideek ezin izanen dute hartu elkarteak egun eta pertsona bakoitzeko ezarritako cannabis sativa edo haren eratorrien edo estraktuen kantitatea baino kantitate handiagorik, arrisku prebentziorako neurrien eta nazioarteko estandarren arabera kalkulatuta.

Lehen xedapen gehigarria. Administrazio publikoek sustatuko dute lankidetzako organoak sortzea horien eta kanabis-kontsumitzaileen klubetako horiek ordezkatzeko dituzten entitateen artean, estatistika-ondorioetarako informazioa trukatzeko aldera, osasun-kontrolerako neurriak ezartzeko aldera, prebentzio-planak prestatzeko parte hartzeko aldera eta kontsumo arduratsuari nahiz kontsumoak dakartzan arriskuei edo Nafarroako Foru Komunitatean kanabisa kontsumitzearekin lotutako beste edozein gairi buruzko prestakuntza eskaintze aldera.

Bigarren xedapen gehigarria. Kanabis-kontsumitzaileen klubek beraiek elkartzeko entitateak sortzeko ahalik dituzte, interes komunak lortzeko nahiz administrazio publikoen eta gizarte osoaren aurrean haien ordezkari gisa jarduteko.